

arteka

Urria, **historia**
ekoitz
dezagun



**«Iraultza askatasun-ekintza bat da,
non proletalgoak historiaren produktu
izateari uzten dion, historiaren
produktore bilakatzeko; iraultza
politika azaleratu eta objektibotasun
sozialaren menderatzaile egiten duen
bitartekoa da; politika da historiaren
aurka. Iraultzaren eztanda politiko
hori gabe, matxinadaren bidez
proletalgoak boterea hartu gabe,
pentsaezina da iraultza bera»**

06

EDITORIALA

Arteka

Iraultza
posible da

10



KRONIKA

Hedoi Etxarte

Zalditeria gorriaren lauhazka

20

KOIUNTURA

Martin Goitiandia

Eurokomunismoa, Ongizate
Estatua eta paktu soziala

26



ERREPORTAJEA

Arteka

Gizarteari begira: erroko
aldaketak, oinarritik

42



KOLABORAZIOA

Alberto Riesco

Lanaren soziologia
frantziarra eta sistema
sobietarraren analisiari
egiten dion ekarpena

54



ERREPORTAJEA

Aingeru Otxotorena

Sobietar Batasuna:
autodeterminaziorako
eskubidea, federalismoa
eta nazio auzia ebazteko
beste proposamen batzuk

Iraultza posible da

EDITORIALA

Urria gorriz markatutako hilabetea da komunistentzat, gure historiaren zati bat da, non gure ezagutza gehienak kondentsatzen diren. 1917ko urrian, gure egutegiaren arabera, proletalgoaren eta mugimendu komunistaren heldutasun-prozesuan atzeraezinezko etapa bat hasi zen, berehalako balantzeak porrota ondoriozta badezake ere, iraultzarako antolatzen denarentzat eta bere beharraren konbentzimendua duenarentzat, askatasuneranzko bide gogorrean urrats bat baino ez dena.

Errusiako iraultza ondoren etorriko ziren iraultzen pizgarria izan zen. Horieta asko ekialdean eman ziren, non, garapen historiko atzeratuak, nazio zapalduen garapen askea eragozten zuen imperialismoaren uztarri politikotik askatzeko mugimenduak sortarazten zituen. Hein batean, Urriko Zikloan gertatutako iraultza gehienak askapen nazionalari estuki lotuak egoteagatik bereizten dira, baita berezkoa duten klasearteko osagaiagatik eta/edo osagai herrikoia ere, ondoren baldintzatuko zituen ezaugarria, porrotera eramanez. Gainera, horien guztien izendatzaile komuna da Europatik kanpo garatzen direla, non, *a priori*, eta subjektibotasun politikoa bigarren maila batean uzten duten formula mekanizista xamarren arabera, iraultzaren baldintza objektiboak onuragarriagoak diren. Hori, hala ere, ezin da ulertu garapen historikoarekin batera subjektuari aukerak irekitzen zaizkiola defendatzen duen kontzepzioarekiko mespre-

Hein batean, Urriko Zikloan gertatutako iraultza gehienak askapen nazionalari estuki lotuak egoteagatik bereizten dira, baita berezkoa duten klasearteko osagaiagatik eta/edo osagai herrikoia ere, ondoren baldintzatuko zituen ezaugarria, porrotera eramanez



Ekonomiaren bilakaera katastrofistari aurrea hartuz soilik egin dezakegu politika; edo politika arrazionaltasun ekonomikoaren marjinetatik kanpo sortzen dena baino ez da. XX. mendeak zerbait erakusten badu, aurkakotasun horren inguruan ematen den harremana da

txutzat, politika beti ekonomiaren arrazionaltasun objektiboaren atzetik datorrela eta azken hori gabe dena ezinezkoa dela defendatzen duen kontzepzioarekiko mespretxutzat baizik. Ulertu behar baita ekoizpen-indarren garapenean lanaren indar subjektiboaren garapena eta haren antolaketa politikoa barnebiltzen direla, eta ez dela, beraz, makinariaren teknologia zientifikoaren garapen soil.

Ekonomiaren bilakaera katastrofistari aurrea hartuz soilik egin dezakegu politika; edo politika arrazionaltasun ekonomikoaren marjinetatik kanpo sortzen dena baino ez da. XX. mendeak zerbait erakusten badu, aurkakotasun horren inguruan ematen den harremana da. Batetik, politikaren beharra, errealitateari aurre egiten dion eta ekonomiaren adierazpen soilak izateari uko egiten dion subjektuarena. Bestetik, fikzio politikoaren gainean eratzen den subjektuaren ezintasuna, izan ahal izateko aurkakotzen duen hori izatera kondenatzen duena. Azken batean, boterea hartzeko une politiko gisa ezaugarritzen den iraultza, eta subjektu iraultzailearen oinarri diren aurrekariak eraldatzen dituen indar sozial gisa ezaugarritzen den iraultzaren arteko harremana.

Alderdi Boltxebikea, Leninek gidatua, politikaren estrategia handi bat izan zen, eta politikaren, hau da, askatasun grinetan eragindako bultzada iraultzailearen, nagusitasunaren adibide garbia. Inoiz ez zen baldintzarik gabe garapen ekonomikoaren gertaera objektiboaren mendeko izan, eta beti iraultzaren in-

dar bultzatzaile gisa jardun zuen, gizartearen eraldaketa sozioekonomikoan oinarritutako iraultza soziala gauzatzeko. Horren adibide da nazioen autodeterminazio-eskubidearen auzian defendatutako politika irmoa, zeinaren bidez, beste komunista batzuek egin zuten bezala, lotura nazionalak gero eta estuago bateratzeko joera ekonomikoa ikusle soil bat bezala onartzera etsi beharrean, ekonomizismo horri aurre egin zioten eta proletalgoaren politika abangoardistaren boterea aldarrikatu zuten, bere nazioarteko batasuna ez gertakizun saihestezin bat gisa, baizik eta bereziki, posizio desiragarri bat gisa, ahalbideratuko zuen demokraziaren alde.

Iraultza askatasun-ekintza bat da, non proletalgoak historiaren produktu izateari uzten dion, historiaren produktore bilakatzeko; iraultza politika azaleratu eta objektibotasun sozialaren menderatzaile egiten duen bitartekoa da; politika da historiaren aurka. Iraultzaren eztanda politiko hori gabe, matxinadaren bidez proletalgoak boterea hartu gabe, pentsaezina da iraultza bera. Iraultza politikoaren eta iraultza sozialaren batasun banaezina komunistontzat auzi kardinala izaten jarraitzen du gaur egun ere. Eta, batez ere, iraultza politikoa- ren nagusitasuna iraultza sozialaren prozesuaren gainean, politikaren baldintza errealitate soziala eraldatzeko.

Leherketa iraultzailearik gabe eta Alderdi Komunistan eratutako proletalgoaren matxinadarik gabe, ezinezkoa da errealitatea eraldatzea, eta kapitalis-



*Bada, urritik bi ikasgai atera
nahi genituzke, bata zentzu
positiboan, bestea negatiboan:
1) iraultza posible da, 2) hau,
ezinbestekoa egiten duten
premisak iraultzean datza*

moa suntsitzea. XX. mendean gertatutakoarekin bat ez datorren egoera historiko baten suposizioa baliatuta, gaur egun iraultza antolatzeke eta matxinadaren bidez boterea hartzeke beharrari uko egiten diotenak, sozialismoa eta politika baztertzen ari dira, erreformismoaren lerroetan erortzeko.

Errusiako proletalgoaren matxinada ez da munduko gerra-egoerarekin lotutako baldintza historiko berezi bat, burgesiaren diktadura antolatuta dagoen edozein lekutan, proletalgoari, errealtatea eraldatu ahal izateko, inposatzen zaion bidea da. Funtsezko konkista horretatik kanpo planteatzen den jarduera oro ezin da, inola ere, jarduera iraultzailetzat hartu. Izan ere, lurralde baten gaineko kontrol politikoak soilik ahalbidetzen du bertan ordena berri bat ezartzea eta etsaiaren erasoetatik defendatzea.

Ezin da, hala ere, subjektu iraultzailea ideologia hutsaren gainean eratu. Bere izaerak objektiboa izaten jarraitzen du, baina orain subjektu horrek du bere existentziaren baldintza objektiboen gainean gobernatzeke ahalmena. Botere hori eraginkor bihurtzea da auzia, eta errealtate soziala iraultzea, hau da, subjektu iraultzailearen existentzia-baldintzak iraultzea, subjektua bera alferrikakoa egiteraino, eta menderatze politikorako indar oro suntsitzeraino. Lehenik, emandako baldintzen aurka ez borrokatzeak subjektua gauzen egungo egoeran berrintegratzen duelako, bere arrazionaltasunean deseginez. Bigarrenik, indarrean den egoera delako azkenean subjektua menderatzen duena, bere baitan integratuz eta politika objektibotasun sozial arrazionalizatuaren mendeko eginez. Azken horren adibide da burokrazia, Alderdian integratzen dena, ekoizpen-esparru desberdinetan zuzendaritza-postuetarako sarbide gisa instrumentalizatuz eta figura hori prozesu sozialaren zuzendaritza objektibo gisa betikotuz, politika gainbalioaren ekoizpen kapitalistaren planifikazioaren kudeaketa burokratikoan desegiteraino.

Bada, urritik bi ikasgai atera nahi genituzke, bata zentzu positiboan, bestea negatiboan: 1) iraultza posible da, 2) hau, ezinbestekoa egiten duten premisak iraultzean datza. Bi alde horiek bildu nahi izan ditugu ale honetan, bai ikuspegi politikoa aztertzen, nazioen autodeterminazio eskubidearen inguruko erreportajearekin, iraultzan sinesten zuten, eta egin daitekeen modu bakarrean -hau da, etsi gabe eta politika egiten- antolatu eta bultzatzen zuten boltxebikeen aktibitate politikoa zentrala izan zena; eta baita ikuspegi soziala aztertuta ere, babes soziala gai duen erreportajearen edota lanaren soziologiaren inguruko kolaborazioan jasotzen den bezala. /

Errusiako proletalgoaren matxinada ez da munduko gerra-egoerarekin lotutako baldintza historiko berezi bat, burgesiaren diktadura antolatuta dagoen edozein lekutan, proletalgoari, errealtatea eraldatu ahal izateko, inposatzen zaion bidea da

Zalditeria gorriaren lauhazka

Testua
Hedoi Etxarte





Kasimir Malevitch 1932

1848an idatzi zuten Karl Marxek, Friedrich Engelsek eta Jenny von Westphalenek *Alderdi Komunistaren Manifestua*. Incipit ezagunik bada, hori da *Manifestu*arena. Mamu bat dabilela Europan zehar eta potentzia guztiak Aliantza Santuan batu direla mamuaren kontra. *Manifestu*aren bigarren mendeurrenaren bidean gara, eta aliantza antikomunista *Manifestua* idatzi zen garaian baino indartsuagoa da orain. Zabaldu da, ordea, mamuaren kontrako argudiaketa: antikomunismoaren funtsa, gaur egun, Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasunaren (SESB) txorimaloaren kontra adierazten da. Kapitalismotik atera edo kapitalismo humano bat egin nahi dutenak ez dira suntsitzen, txikiak eta ahulak diren artean, baina erreforma txikienei ere nazioarteko kapitalak gogor erasotzen die, Venezuelako chavismoarekin bezala, adibidez.

Erich Weinert poetaren hitzekin eta Hanns Eislerren –Ameriketako Estatu Batuetako macartismoaren txostenetan «Musikako Karl Marx» izendatu zutenaren– abestian esaten den bezala:

*Zeren Sobietar Batasunaren
kontrako oldarra
iraultzaren bihotzaren
kontrako eraso bat da
eta orain, herriz herri
zabaltzen ari den gerra,
zure kontrako gerra da, proletario!*

Urriko Iraultza eta SESBen historia ikertzeak, ulertzeak eta eztabaidatzeak bere hutsak eta gabeziak ez aztertzea esan nahi du? Ez, noski baino noskiago. Jende xehearen, langile klasearen, lurrean kondenatuen askapena aurreko hutsetatik ikasten joan da aurrera. Hala iritsi ziren urrikoak ere, aurrekoak gogor aztertu eta gaingintzeko nahitik. Eta hala lortu zuten, Gabriel Arestik Trotskiri egin zion olerki hartan bezala, boltxebikeek «erreboluzionario guztion obligazioa kunplitu baitzu[t]en: Egin zu[t]en erreboluzioa. Erreboluzio sobietikoa». Egin, eta historian ia inoiz gertatzen ez dena lortu zuten gainera:

irabazi zuten.

SORTALDEA

Urriko Iraultzaz irakurketa asko egin dira. Egin daitezke. Badira filmak. Poemak. Eleberriak. Zuzenean idatzitako kronikak. Historia liburu partidariorioak. Historia liburu antikomunistak. Baina badira bi sententzia politiko ia eztabaidaezinak:

Baga: Urrikoa azken hiru mendeetako iraultza sozial eta politiko nabarmenetako bat da beste hirurekin batera: Frantziako Iraultza (1789-1799), AEBetako (1775-1783) eta Txinakoa (1927-1949).

Biga: Urrikoa da azken bi mende luzeetan (Frantziako Iraultzatik) langile mugimendu antolatuek izan duen garaipen politiko nabarmenena denboran eta espazioan. Denboran: 1917ko Urriko Iraultzatik, 1989an Berlingo harresia erortzen hasi eta SESB desagitzen hastera arte iraun zuelako txinparta hark (SESBen eta munduan). Eta espazioan: Urriko Iraultzak sortu zuen ereduak ahalbidetu zituelako hamaika erakunde iraultzaile mundu osoan. Horietako asko aurreko botereak garaitu eta estatuen gobernantzara iritsiko ziren beren proiektu sozialistekin edota antikolonialekin (Txina, Kuba, Vietnam, Ipar Korea, Nikaragua).

PARTISANO PROFESIONALA

Urriko Iraultzaren mendeurrenaren harira, Alain Badiou filosofo maoistak gogorarazten zuen: «benetako iraultzak beti dira aurretik egon diren iraultzen berpizkundeak». Hala, Urrikoak berpiztu zuen Pariseko 1871ko Komuna, Robespierren Konbentzioa, Haitiko esklaboaren iraultza, are XVI. mendeko Alemaniako nekazarien gerrak. Iraultzek genealogian oso atzera egiten dute. Rosa Luxemburg, Karl Liebknecht eta gerora Alemaniako Alderdi Komunista osatuko zutenek, hala deitu zioten beren buruari: Espartakoren banda. Hogeita bat mende lehenagoko erreferente bat zen haiena. Iraultza bat dagoen aldiro osteratzen dira jende xeheak eredu izan dituen pertsonaia

Urriko Iraultzaren mendeurrenaren harira, Alain Badiou filosofo maoistak gogorarazten zuen: «benetako iraultzak beti dira aurretik egon diren iraultzen berpizkundeak»

horiek: Espartako, Thomas Müntzer, Robespierre, Saint-Just, Toussaint Louverture, Louise Michel, Lissagaray, Lenin, Trotski, Alexandra Kollontai, Lunakharski, Rosa Luxemburg, Karl Liebknecht, Clara Zetkin, Mao Tse-Tung, Ho Chi Minh edo Che Guevara.

Baina goazen hasierara. 1871an, 1830eko eta 1848ko iraultzen porrotaren eta biharamun erreakzionarioan, Pariseko iraultzaileek historiako lehenengo langile iraultza burutuko dute. Martxoaren 18tik maiatzaren 28ra, sistema politiko sofistikatu baten bidez, gerrak kolpatutako jendetza bere buruaren jabe egingo da. Autodeterminazio ariketa behinena eramango dute burura. Baina Frantziako erreakzioak, atzerriko indarren laguntzarekin, Komunak garaitu eta komunakideak masakratuko ditu: 20.000 hildako, 40.000 atxilotu, milaka deportatu. Marxentzat proletarioen diktaduraren eredu bat izango da; «Komunako martirien oroitzapena errukiz gordetzen du langile klasearen bihotz handiak». Bakuninentzat –Estaturik egon ez zen neurrian– anarkismoaren adibide. Baina bizi izan zutenentzat, eta edozein ikuspegi historiko-politikotatik, Komunaren garaipena hain izan zen laburra eta sarraskia hain odoltsua, guztiak zuela

porrotetik gehiago.

Leninismoa porrot horri emandako erantzun bat izan zen. Badiouk azaltzen duenez, Leninentzat afera ez zen Komunak iraun zuen egunetan bertan gertatutakoa balekoa ote zen ala ez. Afera zen baietz, antolakuntzaren, autodeterminazioaren garaipen eztaba daezina zela han gertatutakoa. Baina, porrota zerk sortu zuen aztertuta, argi zegoen: boterera iristiaz gain, iraultzak boterean segi behar du bere proiektua garatzeko. Eta proiektu hori erreakzioaren armek suntsitu bazuten, iraultzaren armekin defendatu behar zen.

Eta hori izan zen, bi pausutan, Leninin –eta gerora, leninismoaren– arrakastaren eta hedatzearen arrazoiak: nola egiten du etsaiak gerra? Nola egin behar dugu guk? Zientzia gisa ikasi zuen, Marxekin batera, Clausewitz. Ikasi zituen XVIII. eta XIX. mendeetako gerrak eta gerrillak. Afera ez zen berria. Marxek eta Engelsek bazekiten gerra iraultzailea ezin zela antzinako iraultzak bezala barrikaden gerra bat izan (Pariseko Komunakoa izan zen bezala). Engelsek bere azterketa zientifiko-militarretan ere hala nabarmendu zuen. 1915ean, Lehen Mundu Gerraren gorrian, Leninek Clausewitzten *Vom Kriege* ikasi zuen. Haren kaie-

Vera Ermolaeva 1932



[...] Leninentzat afera ez zen Komunak iraun zuen egunetan bertan gertatutakoa balekoa ote zen ala ez. Afera zen baietz, antolakuntzaren, autodeterminazioaren garaipen eztabaidea zina zela han gertatutakoa. Baina, porrota zerk sortu zuen aztertuta, argi zegoen: boterera iristeaz gain, iraultzak boterean segi behar du bere proiektua garatzeko

ran, *Tetradkan*, alemanez jaso zituen aipuak eta errusieraz glosak. Gerora Carl Schmitt faxistak Iruñean emango zuen hitzaldi batean miresmenez aipatu bezala: Leninek hitzarmen berri bat egin zuen partisoanaren eta filosofiararen artean. Leninentzat partisoanarena ez zen soilik afera militar bat, baitailako estrategiaren kontu bat. Klase borrokak ordena politiko eta sozial osoa hankaz gora jarri behar bazuen, eta ordena berri bat eraiki, afera ez zen soilik obedituko zuten milaka lagun eskura izatea. Iraultzaile profesionalak jakin behar zuen zer egin gerran, zer egin bakean, zer egin batzar batean, nola idatzi agiri bat, nola hitz egin batarekin eta bestearekin, nola erabakiak hartu goikoek ezer esaten ez zutenean.

Iraultzaile profesionalak jasoko zituen lerroak prentsari, agiritan eta alderdiko batzarretan. Baina iraultzaile profesionala buruaskia zen iraultza zegoen tokian: jakin behar zuen zer egin, autonomoki. Eta horrek «indar lehergarri susmaezinak sortu zituen».

Garaiko sozialdemokraziaren gehiengoaren kontra, Leninek nabarmentzen zuen aldaketa ez zela hauteskunderaz hauteskunde iritsiko. Ez soilik, Rosa Luxemburgek nabarmendu bezala, erreforma eta iraultza naturaz proiektu desberdinak direlako, baizik eta iraultza egiteko metodoak ere ezin direlako erreformarenak izan. Ildo horretan, Leninek partisoanaren kontzientzia ondu zuen. Alderdi Komunistaren zuzendaritzako tresna

ezinbesteko bihurtu zuen «Der Partisanenkampf», 1906ko *Proletarioa* aldizkari errusiarrean. Objektibismoaren eta progresismoaren kontra, Leninek argudiatu zuen «iraultzaile profesionalik gabe» ez zela egongo iraultzarik.

Orduko sozialdemokrazian nagusi zen ideia zen masa mugimenduak lortuko zuela iraultza proletarioa, haren kabuz. Herrialde parlamentarioetan hauteskunde bidezko aldaketekin, adibidez. Leninentzat gerra partisoanaren «borroka egiteko modu ekidinezin bat», dogmatismorik gabe erabili beharrekoa, unean uneko hautatu beharreko bideen arabera lantzekoa: batzuetan legalki, bestetan ilegalki, bide baketsuekin ala biolentoekin, modu erregularrean ala irregularrean. Baiez-



Baina, leninismoak politika iraultzaileari ekarri zion berritasunetako bat antolaketarena izan zen. Lukácsék nabarmendu zuen materialismo historikoaren egunerokotasuna proletarioen iraultza zela. Alegia, politika iraultzaileak gertakariei aurrea hartzeko gaitasun bat izan behar zuela: etorkizuneko iraultzara iristeko ekintza koordinatuak eman behar zirela

tapen erretorikoarekin argi esateko: helburua iraultza komunistak mundu osoan garaitzea baldin bada, helburu horren aldeko edozer da ona eta justua.

Beraz, maitasunez ala gorrotoz esan daiteke, hemen hori gutxienezkoa da, baina leninismoa «kuarteleko sozialismoa da»: Komunari agertutako ezintasun militarri garaipen militarra ematen dion prozedura politiko bat da. Eta horregatik hartzen du leninismoak politika egiteko modua gerratik: dauzka manifestuak, dauka abangoardia politikoa, dauzka komisario politikoak, egiten ditu bere egiturari garbiketak, dauzka koadroak eta liderrak.

Hori izan zen leninismoaren zabaltearen lehenengo pausua: politikan ekiteko metodo berri bat, langile mugimenduak ordura arte landu ez zuena. Eta segidan etorri zen bigarrena: Urriko Iraultzak, beste hamaika iraultzek ez bezala, irabazi egin zuen. Iritsi zen boterera, gerra zibila bukatu eta gero. Eta bihurtu zen garaile izateko gaitasuna izan zuen gertakizun bat. Eta horrek egin zuen geldiezin. Epika dekadenteak porrotari laudorio egiten dion bezala, epika iraultzaileak (Brecht-en eskolan) aldaketa sakonak egiteko baldintzak sortzeari egiten dio laudorio. Eta, beraz, leninismoa hedatu zen mundu guztira. Eta alor guztietara; politikara, bai, baina baita ere, adibidez, artera. Eta artistak hasi ziren, haien erreferente politikoek egiten zuten bezala, manifestuak

egiten, abangoardiak muntatzen, artearen munduan etsaiak izendatzen, barruan purgak egiten, manifestu gehiago idazten. Arteak mundua aldatzeko balioko bazuen, mundua izendatzeko eta munduaren esanahia ezartzeko, garaile izango zen baliabide artistiko bat jarri behar zen martxan.

Eta hori dena eztabaida ezina den era berean, eztabaida ezina da, halaber, sarri gertatzen den bezala, garaile egin zuen horrek berak ahuldutako zuela, kamustutako zuela, urriko garaipen hura, alegia: militarismoak (barrura begira) eta burokratismoak (politikan ezinbestekoa den diziplina, bai, baina hain ezinbestekoa den eztabaida eta kritika ezinezko egingo zuena), 1937a urte tragiko gisa hartuta.

Ezagun da, Clausewitz-ek Leninek ikasitako bidea garatutako zuela gero teorian eta estrategian Mao Tse-Tung-ek, pobreziatik eta gosetetik milioika lagun atereaz Asia hego-ekialdean.

ILDO LUZEAREN LANKETA

Nadezhda Krupskaiak-k, bere *Leninen oroitzapenak* kronika ederraren hasieran bi printza dauzka Lenini buruz. Horietan lehena da Leninen bizitzaren haren anaia zahar iraultzaileak izan zuen eragina. Alexandr Ulianov zoologo ezaguna izan zen, are saritua. 1887an, Aleksandr III.a hiltzen saiatzeagatik urkatu zuten Ulianov. Leninek uste zuen anaia, anelidoenganako

pasioa izan zuten gizon hura, ez zela iraultzaile bat. Krupskaiaren aburuz, Leniengan haren anaia izan zuten patuak eragin definitiboa izan zuten: naturarekiko pasioa izan zuten gizon hark, espero ez zenean, muturreko ekintza iraultzaile bat egin zuten (Ulianoven patua, gerora Sobietar Iraultzaren pertsonifikazioa ere bazen: inork espero ez zuten tokian, inork espero ez zuten baldintzatzea gizateriaren historia). Krupskaiaren aburuz, Alexandr Ulianoven amaierak gogoe-ta handia eragin zion Vladimir Ilitxi, «pentsamendua sustatu zuten, egia begiz begi begiratzeko nahia, esalditxoetan ez galtzeko nahia, lilurari uko egitekoa, hitz batean, zuzentasun handi bat eratu zion gauzak ikusteko moduan».

Krupskaiak kontatzen dituen sarre-rako pasarteetan artean nabarmentzekoa da Vladimir Ilitxek filosofia liburuarekin izan zuen harremana («Gauetan filosofia liburuak irakurri ohi zituen [...]: Hegel, Kant, materialista frantsesak eta, nekatzen zenean, Puxkin, Lermontov, Nekrasov»). Tira. Urrikoa «nola gertatu zen» argitzeko liburu bakarra hautatu behar izatekotan, akaso Krupskaiarena da liburuetan plastikoenak. Famatu den John Reeden *Mundua inarrosi zuten hamar egun* bikain hura baino gehiago. Bistan delako iraultzen haurdunaldia oso dela luzea, eta erditzea zer esanik ez, eta hala kontatzen du Krupskaiak ere, 1917koa nola hasi zen XIX. mendean.

Boltxebikeek 1905eko iraultzatik aurrera lortuko zutena (1917tik aurrera zer esanik ez) txundigarria zen. Besteak beste, ordura arteko hipotesia zelako iraultza industrialki garatutako herrialde batean gertatuko zela, kapitalismo parlamentario batean alderdi sozialdemokrata fuerte bat izango zutena. Eta, beraz, iraultza inon hastekotan Alemanian hasiko zela, adibidez. Ala Europa mendebaldean gutxienik.

Baina leninismoak politika iraultzaileari ekarri zion berritasunetako bat antolaketaarena izan zen. Lukács-ek nabarmendu zuen materialismo historikoaren egunerokotasuna proletarioen iraultza zela. Alegia, politika iraultzaileak gertakariei aurrea hartzeko gaitasun bat izan behar zuela: etorkizuneko iraultzara iristeko ekintza koordinatuak eman behar zirela. Hala, Leninen kontzepzioa bideratuta dago iraultza gertatzeko koordinatu behar diren ekintza politikotara. Alderdien lana, Bigarren Mundu Gerraren osteko Mendebaldeko Alderdi Komunista nagusiek kontrakoa egin bazuten ere, testuinguru materialetatik abiatuta iraultzak imajinatzea zen, antolatzea: izatea mapa, lurraldea eta iparrorratza irakurtzeko gaitasuna. Lan horretan toki garrantzitsua izan zuten emakumeek (aipatutako Krupskaiak bezala, Anna Boldirevak, Anna Litveikok, Vera Lebedevak, Inessa Armandek edota Alexandra Kollontaik).



Lehen Mundu Gerra zen eta gizon aktibo ia denak frontearen zeuden. 1917ko otsailean Putilov metalgintzako fabrikako 30.000 langileak kalera atera ziren eta soldata igoera eskatu zuten. Grebalariaiek elikadura lortu nahi zuten emakumeekin elkartu ziren. Handik egun batzuetara, gure martxoaren 8an, 90.000 ziren langile gizon eta emakumeak. Eta Nazioarteko Emakume Langileen eguna izan zen, iraultzaren azken txanparen hasiera. Handik aurrera grebak, sozialdemokraziak iraultzailetzat ez zuen metodo horrek, jende xehearen kontzientzia handitu zuen. Hala hasiko zen Otsaileko Iraultza deitu zena, Urrikoaren aurreneko fasea.

Hala eta guztiz ere, 1917ko urtarrilean, 1905eko iraultza errusiarraren hamabigarren urteurrenean, Leninek berak uste zuen Errusian emango zen iraultza «demokratiko-burgesa izango zela sozialki, baina proletarioa erabilitako borroka moldeetan». Alegia, tsarren autokrazia suntsituko zela, noblezia, baina burgesia kapitalistak segituko zuela indarrean, behintzat Europa osoan iraultza piztu arte. Neurri horretan, boltxebikeen bidearen akatsa haren arrakasta izan zen: oso azkar egin zuen jauzi iraultza burges-demokratikoak langileen iraultzara. Baina ez zen hala gertatu Europan, funtsean, 1918-1919an sozialdemokraziak Alemaniako hiriz hiriko iraultzak masakratu zituelako. Eta horrek bakarrik utzi zuen SESB. Domino efekturik ez zen izan eta asko itxaron beharko zen Txinako Iraultza iritsi arte, gerra hotz betean. Ez zen posible izan iraultzarik herrialde industrializatuetan, tartean, ordurako, Urriaren oinordeko mendealdekoek ez zutelako iraultzarik nahi, 1917aren aurretik sozialdemokraziak erabilitako estrategia eta markoa zen orain haiena: hala 1937ko eta 1978ko Espainian, nola 1945etik aurrerako Frantzia eta Italian zein 1974ko Portugalen.

BAKEA, LURRA ETA OGIA

XIX. mende amaieratik nabarmen zen II. Internazionalaren baitan, alder-



di sozialdemokratetan bazirela proiektu ezberdinak. *Erreforma ala iraultza* esango zion Rosa Luxemburgek 1899an bere parlamentarismoaren kritika gogorrean. Barruko beste tentsio nabarmenetako bat afera koloniala zen, baina kolonialismoari lotutako beste aldagai batek ekarri zuen ordura arteko langile mugimenduko erakunderik handienetan (alderdi sozialdemokratetan) eszisia: Lehen Mundu Gerrak. Sozialdemokraziaren aparatuetan geratuko



ziren aldeaz ala moldez gerraren kontra egotetik gerrak babestera pasatakoak, gerra kredituen bidez Alemaniako kasuan, eta sozialdemokraziatik alde eginda alderdi berriak sortuko ziren.

Gerrako izugarrikeria determinantea izan zen ez soilik Errusiar Inperioan. Europa erdialde eta mendebaldean ere hala irakurri zen gerra. Hala Gyorgy Lukacsek azalduta nola Ernst Blochek, Jaroslav Hasekek zein Bertolt Brechtek kontatuta, gerraren basakeria

belaunaldi trauma bat izango zen –arte plastikoek eta literaturak nabarmenduko zutenez–. Afera ez zen soilik hilda-koena, afera zen gizarte osoa zihoala amildegira eta, funtsean, langile jendeak langile jendea hil eta pobretzeko makina bat zela gerra. Boltxebikeen eslogan ezagunak «Bakea, lurra eta ogia» aldarrikatzen zuen. Eta gerraren kontrako aldarriak berekin ekarri zituen herrien askapenaren aldeko eta inperialismoaren kontrako aldarriak.

Masakreaken kontrako bulkada boltxebikeen hazi nabarmenetako bat izan zen. Lehen Mundu Gerra betean Trotskik salatu zuen lubakietan odolak itota geratzen zirela «osasuna, erosotasuna, higieña, eguneroko trukeak, lagunarteko harremanak, betebeharrak profesionalak eta, azken batean, moralaren arau hautsezinak». Zibilizazioaren onena amiltzen zen gerran. 1939ko abuztuaren hondarrean berdin adierazi zuen Molotovek nola Frantziak eta Ingalaterrak espero zuten Hirugarren Reicha SESBen kontra aritzea «eskala handiko beste masakre berri bat sortuz, nazioen holokausto berri bat» eraginez.

Europa Mendebaldean ez zegoen zalantzarik: «ezinbestekoa zen masakre nazkagarriaren sortzen zuen ordenapolitiko-soziala eraistean eta ezin zen tarteko helbururik izan; dena zegoen kapitalismoa/sozialismoa kontraesanaren inguruan, ala burgesia/proletariatza ardatzean». Leninek ere hala espero zuen, inperialismoa izango zela iraultza sozialistaren bezpera. Hain zela onartu ezinezkoa kapitalismoa, horren ostean «ordena sozial eta ekonomiko gorenago bat» etorriko zela kapitalismoa gainditzera.

Gerraren azterketa eta salaketa, lehendik zetorren boltxebikeen artean. Hala, Bukharinek 1911an Europan eta AEBetan egin zituen bidaietan, salatu zuen estatuak nola ari ziren lanean gerra berriak lantzeko. Nola Mendebaldean «dena zegoen 'mobilizatuta' eta 'militarizatuta'». Eta nola gerraren eta inperialismoaren helburuak erasaten zuen ekonomia, kultura, moralak, er-



lijioa, «medikuntza, kimika eta bakteriologia». Alegia, «makina tekniko erraldoia» bihurtu zela «heriotzerako makina erraldoi bat». Gerora «totalitarismoa» esango zitzaiona ikusiko zuen Bukharinek. Industrialismoak zekarrera eztabaida handiko puntua izango zen langile mugimenduan oro har, baita komunisten artean ere. Ordea, beste auzi askotan bezala, Domenico Losurdok azaltzen duenez, Mendebalde industrializatuko langile mugimenduak kritika egingo dio garapenkeriari. Ekialdeko langile mugimenduak, ordea, garapen teknologiko azeleratuan ikusiko du jende xehearen baldintzak hobetzeko modu ia bakarra: osasun,

hezkuntza, elikadura, energia eta garrario azpiegitura osoa egiteke zutelako, besteak beste.

PORROTA

Alain Badiouk, bere *Hipotesi komunistan* nabarmentzen zuen testu politiko bat antolatutako prozesu politiko baten baitan egon behar dela. Ordea, filosofia politikoko testu bat guztiz kontrakoa da. Bere asmoa da politika «fundatzea» are *politikoa* «fundatzea». Mitoan bezala filosofia politikoak arau moralak ezartzen ditu, betierekoak, esango du zein den botere «ona», eta esango du ze Estatu den «ona». Badiouren aburuz, «egungo filosofia politikoa da kapitalo-parlamentarioaren zerbitzari eruditua».

Edozein gertakizun politiko aztertzeke, gertakizun historikoak barne, ezin da mito bat bezala irakurri pro-

zesua. Urriko Iraultzaren porrotarekin ere berdin egin behar dugu. Badiouk proposatu bezala, *porrot posibleen eremua* aztertu behar dugu. 1917an 1871a irakurri zuten bezala, eta 1871an 1848a eta 1830a.

Vladimir Maiakovski-k idatzi zuen eta Ernst Busch-ek Hanns Eisler-en melodiarekin abestu *Ezkerreko martxa*:

*Utzi
britainiar lehoiari marru egiten,
hortzak erakusten ditu esfingeak.
Inork ez du Komuna makurraraziko.
Ezkerra!
Ezkerra!
Ezkerra!*

Baina bai. Komuna makurrarazi zuten, SESB bezala, Kultur Iraultzako Txina bezala. Porrotak aztertzeke dira.

KOMUNISMOA GAUR, IRAULTZA GAUR

Jodi Dean-ek idatzi du gaur egun iraultza gehiago aipatzen dela arazo gisa konponbide gisa baino. Gaur egun ez dela iraultzaren beharrean sinisten. Gehiago gaudela begira ea dauzkagun duintasun apurrak kenduko ez ote dizkiguten duintasuna unibertsal egiteko borrokatzeari baino. Emantzipazio berdinazaleak ez dituela garai onenak.

Deanen aburuz iraultza zentroan jartzeko modu bakarra alderdi komunista eratzearen perspektiba da. Perspektiba politikoa hori izan ezean kapitalismoa da daukagun horizonte bakarra. Era horretan alderdiaren lana antizipazioa da, «iraultza materialki posible egiteko sinetsmena» landu behar du. Ez soilik egungo egoera zehatzen gainditzeko gisa, baizik eta egungo orientazioa eta potentziak ukatu eta berriak sortzen lagunduz.

Lukács-ek aztertuko zuenez, Lenin-ek erkarpen nagusia teoria marxista praktikara eramatea izan zen. Lan horretan iraultzaren egunerokotasuna zen markoa, eta ekarpena zen teoriaren eta praktikaren arteko mediazioa

antolakuntza bera zela. Alegia, materialismo historikoa ez dela lehenaldia- ren azalpen bat, etorkizunarekin duela harremana, etorkizuna gaur egunera ekartzen duen neurrian. Etorkizun hori da gaur hautatzen eta erabakitzen zuten duena. Ez da etorkizuna «etziren» zentzuan, da etorkizuna «gaurren» zentzuan.

Leninen aldaeretakoa bat, tradizio sozialdemokrata dogmatikoaren kontra, izan zen alderdiak ez zuela egiten iraultza. Afera ez zela masa akritikoa artalde bat bezala bideratzea. Alderdiak iraultza aurreratu behar zuen. Leninek zioen «hautatu behar zirela modu zorrotzean alderdiko militanteak, klase proletarioaren kontzientzia zutenak eta beren elkartasun eta babes osoa ematen zietenak gizarte kapitalistaren baitako esplotatu eta zapaldu guztiei».

Ekialdean bukatu zen urriaren txinparta. Txinparta hark hobetu zituen ere Mendebaldeko milaka lagun bizi- tzak, kapitalaren eta sozialdemokrazia- ren paktuaren bidez, 1945tik aurrera. Baina Mendebaldeko paktu hori politika iraultzailearen porrota izan zen. Porrot horren ilustrazio ederra da Mendebaldeko marxismo deitu izan dena, Losurdo-k adierazi bezala, Mendebaldeko marxismoa «kritikatzeaz harro sentitzen da eta hor aurkitzen du bere izateko arrazoia, ez ditu planteatzen alternatiba bideragarriak eta nagusia den bloke historikoari ez dio alternatibarik eraikitzen, izan beharriaren pedanteke- riaren ilustrazioa da; eta gero boteretik urrun dagoelako betea sentitzen da, purua dela adieraziz, arima ederraren figura haragitzen duen bitartean».

Urriko Iraultza gertatu zen mundua eta gaur egungoa oso dira diferenteak, besteak beste, Urrikoa gertatu zelako. Eta, ordea, edozein antolaketa 1887ko Lenin izan behar du gogoan: material- ki zapalduenen aldamenen egunez eta filosofia irakurtzen, irakurle taldeetan eztabaidatzeko prestakuntza lanetan, gauez. Esloganen kontra antolaketa eta irudimena. /

BIBLIOGRAFIA

Arendt, Hannah, *Sobre la revolución*, Alianza: Madrid 2019.

Badiou, Alain, *L'Hypothèse communiste*, Lignes: Paris 2009.

Badiou, Alain, *Petrograd, Shanghai. Les deux révolutions du XXe siècle*, La fabrique: Paris 2018.

AA, *Viento Sur 150*, 2017ko otsaila.

Dean, Jodi, *Multitudes y partido*, Katakarak: Iruñea 2017.

Groys, Boris, *La posdata comunista*, Cruce: Buenos Aires 2015.

Groys, Boris, *Obra de arte total Stalin*, Pretextos: Valencia 2008.

Kollontai, Alexandra, *Catorce conferencias en la Universidad Sverolov de Leningrado (1921)*, Cienflores: Buenos Aires 2014.

Krupskaia, Nadezhda, *Recuerdo de Lenin*, Fundación Federico Engels: Madrid 2015.

Losurdo, Domenico, *El marxismo occidental. Cómo nació, cómo murió y cómo puede resucitar*, Trotta: Madrid 2019.

Lukács, Georg, *Lenin. A Study on the Unity of His Thought*, Verso: Londres 2009.

Rodríguez, Emmanuel, *La política contra el estado. Sobre la política de parte*, Traficantes de Sueños: Madrid 2018.

Schmitt, Carl, *Teoría del partisano. Acotación al concepto de lo político*, Trotta: Madrid 2013.

KOIUNTURA
Martin Goitiandia

Eurokomunismoa, Ongizate Estatua eta pakto soziala

Asko hitz egin da Sobietar Batasunaren inguruan *Artekar*en ale honetan. Hala ere, SESB barruko auziak bezain interesgarriak dira bere mugetatik kanpo izan zituen eraginak ere. Zehazki, bi mundu gerraren gerraostetik Varsoviako paktutik kanpo geratu ziren Europako herrialdeen berreraikuntzan (Frantzia eta Italia, nagusiki) berebiziko garrantzia izan zuten gerraren amaiera baino lehen III. Internazionalaren kide izan ziren alderdi komunistek (PCFk Frantzia eta PCIk Italian). Komintern edo internazionala desegin bazen ere, alderdi horien eta PCUSaren (Sobietar Batasuneko alderdi komunista) arteko harremana ez zen desagertu hauek 70eko hamarkadan *Eurokomunista* deklaratu zen arte. Horrek esan nahi du Europaren berreraikuntzan eta Ongizate Estatuaren zein hori sostengatuko zuen klase arteko paktuaren jaioztan paper garrantzitsua izan zutela alderdi horiek eta baita SESBek ere.

Gaur egun langile aristokrazia eta orokorrean klase ertainaren programa politikoa Ongizate Estatuaren berreskurapena denez, mugimendu sozialistarentzat ezinbestekoa da haren izaera historikoa determinatzea, sozialdemokraziarekin duen norgehiagokan garaile atera nahi badu. Ongizate Estatua mugimendu komunistaren indarrari esker lortu zen ala burgesiak zentro inperialistan egonkortasuna

lortzeko egindako mugimendua izan zen? Galdera horren erantzuna artikuluko honen mugetatik haratago doa, baina edonola ere, hemen hipotesia da Ongizate Estatuaren paradigmatik kontsentsu eta paktu sozial jakina inplikatzeko duela, bai eta klase arteko paktu horretan gerora eurokomunistak izango ziren alderdiek langile mugimenduaren zaindari papera jokatu zutela ere. Auzi honetan faktore andana batek eragiten dutenez, artikuluko honek ez du argudiaketa behar bezala garatzeko aukera ematen, eta beraz, nahasgarria izan daiteke. Horregatik, irakurleari haria behar bezala jarraitzeko ahalegina eskatzen diogu (erreferentzia asko ez dira azalduko, arrazoiketak ez dira sakonduko...).

EUROKOMUNISMOA

1977an, Europa hegoaldeko alderdi sozialistetak buruek (Francois Mitterrand frantsesetik, Bettino Craxi italiarretik, Felipe González espainiarretik eta Mario Soares portugaldarretik) alderdi eurokomunisten ildo politikoa berriarekiko gertutasun jakina adierazi zuten (iparraldeko herrialdeetako sozialisten aurka): «Eurokomunismoa errespetatzen dugu. Bigarren Mundu Gerraz geroztik Europan sortu den korrante ideologiko garrantzitsuen da». Garaiko Suediako Olof Palme sozialistak ondo sintetizatu zuen alderdi komunistekiko gertutasun hau: «Zaila

iruditzen zait alderdi komunisten barnean egiten ari diren berrebaluazioen aurrean mesfidantza besterik erakusten ez duten horiek ulertzea. Onuratzat hartu behar da alderdi horiek eskubide eta askatasun demokratikoetan sinesten dutela adieraztea, oinarritzko eskubideak defendatu nahi izatea, erreformismoak gizartearen aldaketarako duen indarrak ohartzen hastea». Alderdi komunistengana gerturatzeko apustua egin zuten sozialistak horiek arrazoia zuten; izan ere, eurokomunismoak, hain justu, alderdi horien elementu komunistak garbitu eta demokrazia burgesaren oinarritzko arauak onartu zituen. Horrela, ordura arte parlamentarismo burgesean isolatuta zeuden alderdi horiek Estatu kapitalistan integratu ahal izan ziren. Austriako alderdi sozialdemokratako Bruno Kreisky kideak adierazi zuen bezala, «Komunistek, egiaz demokratik izan nahi badute, proletariotzaren diktaduraren kontzeptzio soila baino askoz gehiago alboratu beharra daukate. Hori eginez gero, kredo politikoa oso bat desagertuko litzateke. Ez litzateke komunismoari espezifikoak zaion ezer geratuko eta sozialdemokrata bihurtuko lirateke, hizkuntza arinki iraultzaileago batekin».

Diskurtsoan beren burua gobernu parlamentarioaren aurka agertzen bazuten ere, eurokomunista horiek eroso mugitzen ziren indar parlamentarioen

Hazkundera beharrezko baldintza zen Ongizate Estatuarentzat, baina ez nahikoa. Beharrezkoa izan zen Europan martxan jarri zen berebiziko gainbalio metaketa hori babes sozialerako politiketara bideratuko zuen kontsentsu politikoa ere. Funtsean, hazkunde handi horren zati bat negoziatu zen gainerako hazkunde kapitalaren esku zegoela bermatzeko. Kontsentsu edo paktu honen ondorioz gertatu zen, hain zuzen ere, prozesu eurokomunista

artean. Gino Bianco sozialistak azaldu zuen aldaketa: «Ronald Tierskyk nahiko ondo islatzen du arazoa alderdi frantsesari dagokionez zera dioenean, “aniztasun politikoaren onarpena dagoeneko gertatu da, agian alderdia ez baita inoiz bere helburuak bakarrik lortzeko bezain indartsua izango”. (...) Frantsesek proletalgoaren diktaduraren kontzeptuaren ordez beste nozio bat ezarri dute, *langileriaren hegemonia*. Italiarrek Gramsciren hegemonia kontzeptuaren garrantzia ere aldarrikatzen dute (...) eta pluraltasunarekiko leialtasuna adierazi dute. Batez ere mendebaldeko komunistek indar handia jarri dute balio demokratikoen aldeko debozioan». PCFko komite zentraleko kide zen René Andrieux ere zentzu berean sakondu zuen: «Politika komunistaren ideia da Frantzia krisi honetatik irtengo bada, beharrezkoa dela bere antolakuntza egiturak transformatea. Demokraziaren etengabea ko zabalpenak eramango du herrialdea naturaz egiaz demokratikoa izan beharko duen sozialismora».

1977an Berlinguer (PCI), Marchais (PCF) eta Carrillok (PCE) Madril egindako bilera batean gorago aipatutako aldaketa politikoak formalizatu zituzten adierazpen batean. 80ko hamarkada hasi zenerako, beraz, burututa zegoen alderdi horien eraldaketa prozesua (PCEren ibilbidea ezberdina izan zen, baina emaitza berberak izan zituen). Baina noiz hasi zen 70eko hamarkadan ikusi ditugun ondorioak izan zituen prozesu hau? Zernolako erlazioa izan zuen Ongizate Estatuarekin?

ONGIZATE ESTATUAREN FENOMENOA

Ongizate Estatuak aurrekari ugari dituen arren (Weimarko errepublikako konstituzioa, Suediako erreformismoa, Roosevelten New Deal...), fenomeno hau Estatu kapitalistan Bigarren Mundu Gerraren gerraostean egonkortu zen sistematikoki. Ezin da kausa bakar batekin azaldu babes sozialerako politiken orokortze hau. Hala ere,

garaioko deklarazio eta teoriak argitasun handiz lotzen dute hazkunde ekonomikoa ekoiztako aberastasunaren birbanaketarekin. Horrela, Ongizate Estatu gerraostean Europan sortutako kapital metaketaren zikloaren baldintza bereziei lotuta jaio zen. Baldintza berezi horiek hazkunde altua eta konstantea baimendu zuten 70eko hamarkadara arte. 1949-50 urterako, adibidez, herrialde gehienek gerraurreko ekoizpen maila berreskuratu zuten, eta 1950-70 tartean Europako BPG urteko %5,5 hazi zen bataz beste (AEBen hazkundearen bikoitza); hazkunde horren zentroa industria zen.

Labur esateko, gerra amaitzean kapital konstantea suntsitua zegoen eta erreserbako armada industriala (langabezia) izugarria zen, beraz, metaketa berrabiarazteko arazoa gehiago zen *shock* bat gainbalio falta baino. Egoera horrek eskasia eta pobrezia eragin zuen Europa osoan zehar (herrialde garaile zein galtzailuetan), baina nazioarteko ordainketak egiteko likidezia lortuta (dibisak, dolarrak kasu honetan Marshall plana bidez), azkar batean berrabiarazi zen metaketa. Are gehiago, gainbalio tasa altuak eta kapital osoa berritzea aukerak baldintza oso onak ezarri zituzten kanpo inbertsioa erakartzeko. Azkenik, hegemonia estatubatuarren merkataritza zikloak moztu zituen GATTren bidez (librekanbioaren eta protekzionismoaren artean) eta Bretton Woodsen sistema finantzario zein monetarioa ordenatu (NDF, debaluazio lehiakorrak eta kontrol gabeko inflazioa ekiditeko) eta hazkundearen kontrola instituzionalizatu zuten (Munduko Bankua). Hazkunde dinamika horretan ziklo ekonomikoa (Koreako gerraren ondoren izandako beheraldia, adibidez) etengabeko hazkundearen zuzen joera baten baitan gertatu zen, eta horrek erabat lausotu zuen bere presentzia. Horri guztiari esker, bi mundu gerretan Europak mundu mailan galdu zuen pisua berreskuratu zuen: hazkunde demografikoa murriztu zen bitartean, bere ekoizpen indus-

Hemen hipotesia da Ongizate Estatuaren paradigmak kontsentsu eta pakto sozial jakina inplikatzeko duela, bai eta klase arteko pakto horretan gerora eurokomunista izango zireneko alderdiek langile mugimenduaren zaindari papera jokatu zutela ere

triala mundukoaren %38 izatetik %49 izatera igaro zen 1950etik 1970era.

Hazkunde hori beharrezko baldintza zen Ongizate Estatuarentzat (izan ere 70-80eko hamarkadetan, hazkundea desagertzean, Ongizate Estatua bera ere desegiten hasi zen), baina ez nahikoa. Horrez gain, beharrezkoa zen European martxan jarri zen berebiziko gainbalio metaketa hori babes sozialerako politiketara bideratuko zuen kontsentsu politikoa ere. Lege jakin bat edo batzuk ekoizteko adostasun parlamentariotik haratago, Ongizate Estatuak bi mundu gerren ondoren, Gerra Hotzaren testuinguruan (SESB eta Varsoviako ituna parez pare etsai izanda), bake soziala lortu nahi zuen European. Funtsean, hazkunde handi horren zati bat negoziatu zen gainerako hazkundea kapitalaren esku zegoe la bermatzeko. Kontsentsu edo paktu horren ondorioz gertatu zen, hain zuzen ere, prozesu eurokomunista.

EUROKOMUNISMOAREN JATORRI HISTORIKOAK: GERRA ONDORENGO PAKTU SOZIALAK

Gehienetan eurokomunismoaren aurrekari gisa PCUSren XX. Kongresuan hasitako Jrushchoven desestalinizazioa eta 1956ko Hungariaren inbasioa ezartzen dira. Esaten da honelako gertakariak banaketa bat eragin zutela PCUSren eta mendebaldeko Europako alderdien artean, eta eztabaidaren erdigunea Gerra Hotzaren baitako posizionamendua zela. Posizionamendu horiek garapen konplexua izan zuen; XX. Kongresua amaitu berri zela, adibidez, Thorez (PCF) Stalinen figura defendatu zuen sektorekoa izan zen, baina 70eko hamarkadan, aldiz, honakoak ziren Carrilloren (PCE) adierazpenak: «Ez nago NATOren alde Var-

soviako Itunaren alde nagoena baino gehiago». Hala ere, posizionamendu hauetatik haratago alderdiek beren herrialdeetan hartu zituzten posizio politikoetan zentratuko gara, 70eko hamarkadako tesietara –Ongizate Estaturen paktua gertatu zen tarte– nola iritsi ziren aztertzeke.

Ziurrenik alderdi eurokomunisten artean PCIrena da kasu aztertuen. 1943-tik 1945-era Italian bizitakoa «gerra zibil» gisa definitu izan da. Egoera hartan nolabaiteko egonkortasun paktu bat bilatu zen, 1946an errepublikan eta konstituzio berrian egikaritu zena. Faktore askok eragiten zuen gerraosteko paktu horren desoreka: AEBren esku hartzea (CIA bidez, adibidez), Vaticanoaren eragina, altzairuzko harresiaren gertutasuna... Baina, hala ere, Italia berria bi indar handiren arteko orekan geratu zen: alderdi demokrata kristaua (DC) batetik eta PCI bestetik. *Salernoko bira* (Svolta di Salerno) deiturikoan, garai haietan PCIren buru zen Togliatti alderdiaren erantzukizun historiko batetik abiatu zen Italian iraultzari uko egin eta erreforma demokratikoen beharren alde egiteko. Ildo horretan, milizia partisanoak armagabetu eta gobernuan sartu zen DCrekin batera justizia ministro gisa.

Togliattiren figura militantea gerora Carrillo bezalako eurokomunistenaren gainetik egon arren, berak ezarri zituen bira politikoaren lehen oinarriak. Urte haietan, Labriola eta Gramsci izan ziren alderdiaren erreferente (edo Gramsciren irakurketa jakin bat behintzat), nahiz eta azken hori gehiago apologizatzen zuten politikoki sinbolikoki baino. Togliattik gerratik (gerra zibiletik eta mundialetik) erdibitua ateratu zen Italia ba-

ten aurrean «erantzukizunaren» eta «egonkortasunaren» alde jokatu zuen. Hori 1948an nabarmendu daiteke, alde batetik haren aurkako atentatu baten ondoren gertatu zen greban bakea mantentzeko dei egin zuenean, eta, bestetik, PCI alderdi sozialistarekin batera aurkeztu zenean hauteskundeetara *fronte demokratiko* izenarekin. Azken joera horren aurrekaria faxismoaren aurrean III. Internazionalek (Komintern) markatutako Fronte Popularren estrategian datza. I. Mundu Gerrak II. Internazionale agortu eta zatitu zuela ikusirik, SESBek Komintern sortu zuenean bere kideei diziplina handia eskatu zien potentzia kapitalistetako alderdiei posizio komun bat markatzeko. Bigarren gerran zehar, beraz, alderdi horiek guztiak (tartean PCI) alderdi sozialista eta demokrata ezberdinekin batu ziren faxismoari aurre egiteko. Horrek minimo demokratikoen programa bat onartzeaz gain, fronteen kide ziren alderdi komunisten konposizioa bera aldatzea ere eragin zuen, zeinak klase ertainetako ildoak txertatzea erraztu baitzuen.

Kasu italiarrak 70eko hamarkadara bitarte izandako bilakaera xehetasunez garatzea oso luzea litzake, baina laburbilduz, gerra amaitu ondorengo urteetako egoera ahulean (iraultza eta erreformaren artekoa, nolabait esateko) PCI ordena burges-demokratikoaren alde jarri zela frogatu badugu, ondorengo bi hamarkadetan ildo bera jarraitu zuela esan dezakegu. Horrela, Togliattiren (PCI) eta De Gasperiren (DC) arteko akordio historikoa Berlinguerren (PCI) eta Aldo Mororem (DC) artean errepikatu zen, eta Italia berriaren oinarri bihurtu zen. Dena den, oreka hori tentuz aztertu beharra

Gerra ondoren kapitalak metaketa ziklo berri bat abiarazi zuen, eta hori bermatzeko gerraosteko erregimen berriek (erregimen berri guztiek bezala) indar politiko ezberdinen arteko paktu bat behar izan zuten. Gerra Hotzak hil ala biziko kontu bilakatu zuen kontsentsu behar hori. Horregatik alderdi komunisten ibilbidea adibide soil gisa azaldu dugu, klase-estratu guztien indar politikoek izan baitzuten beren integrazio prozesua. Integratze zailenak beraiek zirelako azaldu dugu alderdi hauen kasua. 70eko hamarkadako eurokomunismoa ibilbide horren helmuga litzake, beraz: erreformismoaren fruitua, eta ez jatorria

dago, erregimen berriaren oinarriak egonkortu bazituen ere, hamarkada oso ezegonkorra izan baitzen Italian (berunaren urteak izan ziren han; Aldo Moro bera brigada gorriek bahitu eta erail zuten).

Bibliografia gutxiago dago eta ezin gara asko luzatu, baina gertuagokoa izanik, Frantziako PCFren kasuari ere heldu behar diogu, gainera bada ere. Okupazio naziak erabat aldatu zuen III. errepublikako paradigma. 1920an 50.000 afiliatu soilik zituen PCF 300.000 afiliatu baino gehiagorekin atera zen gerratik, erresistentzia izan zuen protagonismoari esker. Italian PCIk bezala, PCFk sekulako indarra zuen Frantzian, baina IV. errepublikaren sorreran egonkortzaile papera hartu zuen. Alderdi barruko sektore batzuek, gerra amaitzean, AEBren txotxongilo zen gobernuaren aurka armak hartu nahi bazituzten ere, PCUSren aginduz alderdiak atzera bota zuen asmo hori. PCIk egin bezala, gerra aurreko fronte popularren politika berreskuratu zuten eta De Gaulleren gobernuan sartu ziren. Italian bezala ere, 1947an gobernu utzi behar izan zuten komunistek, herrialdeak AEBren laguntzak jaso zitzaizkien. Ikus dezakegun bezala antza handia dute bi kasuek.

PCFk PCUSrekiko lotura estua izan zuen PCIk baino (Thorez sektore gogorrenarekin tinko agertu zen bai PCUSren XX. Kongresuan, bai Hungariaren inbasioan ere, adibidez), baina gerra ondorengo erregimenen eraikuntzan antzeko integrazioa onartu zuen. Denbora igaro ahala, nazioarteko arloan ere PCFren posizioekiko bat egin zuen 70eko hamarkadan, gainerako alderdi eurokomunistekin bat egiteraino. Hemen ere ezin dugu PCFren garapena xehetasun osoz azaldu, baina Italiako kasuan bezala, gerraosteko erabakiak posizio taktiko bat baino gehiago posizionamendu egonkor bat izan ziren. Hori erakusten du adibidez hurrengo hamarkadetan Frantziaren abentura inperialistetan (Indotxina eta Arjeria) alderdiak era-

kutsi zuen jarrera pasiboak.

Amaitzeko, desbideraketa politikoa horien heldutasuna (70eko hamarkadako formalizazio eurokomunista baino lehen) beren disidentzia ikus dezakegu argien. Norabide politikoa egin zuten lehen oposizioa postura prosobietikoetatik egin zen, PCUS zaharraren marxismo-leninismo deiturikoaren alde (Thorez bera, adibidez). Horren adierazpen berantiarrena –hemen egin dugun kontakizunarekiko– Hoxharen *Eurokomunismoa Antikomunismoa da* (Eurocommunism is anti-communism) liburua litzateke, edo PCPE bezalako alderdi disidenteak. Hala ere, zalantzarik gabe PCIk eta PCFk 60eko hamarkadaren amaieran ikusi zuten beren ezkerreko disidentzia handienaren jaiotza. Lehena Italiako 67 urtea izan zen, eta ondoren 68 frantsesa. Unibertsitatean jaiotako sektore horiek orokorrean alderdietako politika moderatuak kritikatu zituzten. Gerra Hotzeko posizionamenduetan, eurokomunismo anbiguoaren eta SESBren defentsa sutsuaren artean, beste posizio batzuk ere jaio ziren, SESBregandik urrundu berri zen Txinaren aldeko maoismoa adibidez, edo baita trotskismoa ere. Hala ere, alderdiekiko oposizio hori askoz ere gehiago garatu zen, PCF inguruko posizio intelektualetatik (J. P. Sartre) hasi, eta PCItik kanpo antolatutako mugimenduetaraino (brigada gorriak edota beranduago autonomia operarioa).

ONDORIOAK

Kontakizun honen helburua (analisi historiko ororena bezala) ez da une batean edo bestean hartu ziren erabakiak epaitzea. Gerra ondoren kapitalak metaketa ziklo berri bat abiarazi zuen, eta hori bermatzeko gerraosteko erregimen berriek (erregimen berri guztiek bezala) indar politiko ezberdinen arteko pakto bat behar izan zuten. Gerra Hotzak hil ala biziko kontu bilakatu zuen kontsentsu behar hori; aipatu ditugun gertakariez gain, Kubako misilen krisia, Txileko estatu kol-

pea eta beste hamaika faktore hartu beharko lirateke kontuan zentzu horretan. Horregatik alderdi komunisten ibilbidea adibide soil gisa azaldu dugu, klase-estratu guztien indar politikoei izan baitzuten beren integrazio prozesua. Integratzen zailenak beraiek zirelako azaldu dugu alderdi hauen kasua. 70eko hamarkadako eurokomunismoa ibilbide horren helmuga litzateke, beraz: erreformismoaren fruitua, eta ez jatorria.

Ongizate Estatua kontsentsu honen zutabe gisa aztertu behar dugu. 1945-1971 tartea (*kapitalismoaren urrezko urteak* deitua) gorago azaldu dugun ezohiko hazkundearen produktua (gainbalioa) birbanatzean oinarritutako kontsentsuarena da herrialde hauetan. Hain zuzen ere, 60eko hamarkadako irabazi-tasaren jaitziera 70eko hamarkadako hasieran adieraziko da petrolioaren krisiarekin, eta kontsentsu keynesiano honekin amaituko da. /

BIBLIOGRAFIA

ALDCROFT, DEREK H. (2013). La economía europea 1914-2012. Crítica.

ANDERSON, PERRY (1976). Consideraciones sobre el marxismo occidental. Siglo veintiuno.

BIANCO, GINO (1977). Social democracia y eurocomunismo. Nueva Sociedad (35 zbk.)

DONOFRI, ANDREA (2018). Érase una vez el eurocomunismo. Las razones de un fracaso. Tecnos.

HOBSBAWM, ERIC (1973). Revolucionarios. Crítica.

MARTELLI, ROGER (2016). El PCF en 1956: el miedo al vacío. Nuestra Historia (2).

RUBIO, M. JOSEFA (1989). La formación del estado social. Colección tesis doctorales.

ERREPORTAJEA

Testua Arteka

Gizarteari begira: erroko aldaketak, oinarritik





ОТЧИЗНЕ ГЕРОЕВ-СЛАВА!

Urriko Iraultzaren ondotik, arrapaladan iritsi ziren aldaketak. Langileen oinarritzko eskubideak eskuratzeko lehen urrats gisa, sobietar botereak ehundik gora dekretu sozial eta lege baino gehiago onartu zituen, langileei eta, bereziki, emakumei, haurrei, zaharrei eta ezinduei babes soziala bermatzeko. 1917ko Urriko Iraultzaren ondoren, Vladimir Lenin Sovnarkomoko –Herri-komisarioen Kontseiluko– buru zela, Gizarte Laguntzarako Herriaren komisario izendatu zuten Alexandra Kollontai.

Leninen agintaldiaren hastapenak ez ziren errazak izan, herrialdea egotira ekonomiko oso txarrean aurkitzen baitzen, Gerra Zibilaren, Lehen Mundu Gerraren eta boltxebikeen iraultzatik denbora gutxira Sobietar Errepublika Inbaditu zuten estatu kapitalisten eraso inperialistaren ondorioz. Testuinguru zail horretan hasi ziren lanean Herri-komisarioen Kontseiluko arlokako arduradunak, hala nola osasungintzan, gizarte babesean eta hezkuntzan.

Gerra Zibilaren eta atzerriko esku-hartzeen testuinguruan idatzi zuten Errusiako Sobietar Errepublika Sozialista Federatiboan 1918ko Konstituzioa. Bertan jasotzen ziren helburu politiko orokorrak: pertsonen esplotazioa deuseztatzea eta sozialismoa ezartzea. Horrez gain, herritarren oinarritzko eskubideak zein ziren jasotzen zen. Era berean, herritarren eta Estatuaren egin-beharrak zein ziren zehazten zen, baita horiek nola bermatuko ziren ere.

1922an SESB sortu ondoren, 1924, 1936 eta 1977ko Konstituzioak jarri ziren indarrean. Sobietar Konstituzioak Sobietar Batasuneko gizarte-segurantzak gerora oinarri izango zituen oinarritzko eskubideak jasotzen zituen hala nola herritarren atsedenerako eskubidea, hezkuntzara eta laguntza ekonomikorako zein pentsioetarako eskubidea.

Sobietar Batasunean Estatuak herritar ororen gaineko ardura zuen, eta Estatuaren gain gelditzen zen herritarren oinarritzko bizi baldintzak bermatzeko egingizuna. Estatuaren babesa eta la-

guntza jaso zuten sektore zaurgarrienek: ezinduek, haurrek, adinekoek eta emakumeek. Baina, zein laguntza mota zituzten gizarteko sektore horiek? Zertan oinarritzen zen gizarte-babeseko sistema? Zaila da zehaztasunez horiek guztiak hemen aletzea, sobietarrek lan esparru edo ildo ugaritan esku hartu baitzuten, urte eta agintaldi desberdinetan. Horretaz jabetuta, hurrengo lerroetan zenbait zertzelada idatzi ditugu, 1917ko Iraultzaren lehen urteetan eta ondoren SEBSen gizarteremuetan egindako lana ezagutu ahal izateko.

LAN BALDINTZAK ETA ENPLEGUA

Iraultza boltxebikearen lehen hiru urteetan ekoizpen modu berri baterako premisak jarri zituzten mahai-gainean. Kapitalismoaren, jabetza pribatuaren eta soldatapeko lanaren ustiapenaren ordez, ekonomia sistema sozialista martxan jartzeko baldintzak sortu zituzten. Garai hartan, industria, meategiak, garraioa... Estatuko aparatuzentralak administratzen zuen. Soldatapeko lana existitzen zen oraindik, baina langileen lan-indarretik ateratako gainbalioa jada ez zen edozein enpresaburu pribaturen poltsikoetara iristen. Behar sozialak asetzeko erabiltzen zen: produkzioa garatzeko, kontzientzia sozial berri bat sortzeko eta armada gorriari laguntzeko, besteak beste.

Iraultzaren ostean hartutako erabaki garrantzitsuenetako bat izan zen gizon-emakume guztiei derrigorrezko lan orokorra ezartzea. Kollontaik aipatzen zuenaren arabera, lege horrek aldaketa ugari eragin zituen emakumeen bizitzetan eta historian. «Emakumeak gizartean, Estatuan eta familian bete izan duen papera ikaragarri aldatu du derrigorrezko lan orokorraren ezartzeak, beste edozein dekretuk baino gehiago».

Lege-arau horrek, berez, legearen aurreko berdintasun formal adierazten zuen; baina aurreneko urteetan bestelakoa zen errealitatea. Izan ere, emakumeek diskriminazioa eta zapalkuntza jasaten jarraitzen zuen, gizar-

tean errotuta jarraitzen zuten tradizio burgesen ondorioz.

Derrigorrezko lan orokorraren gaineko legearen ondorioz aldatu zen emakumeak arlo ekonomikoan jokatzen zuen rola; eta orduz geroztik kolektibitatearentzako lan baliagarri gisa aitortu zen emakumearen jarduna. Sobietar Batasuneko ekoizpen ereduan ezinbestekoa zen eskura zeuden lan-indar guztien –emakumeak kontuan hartuta– kalkulu eta banaketa zehatza; familiako ekonomia eta familia kontsumo pribatutik ekonomiaren plangintza sozialera nahiz kontsumo kolektibora aldatzea; eta plan ekonomiko unitario bat egitea.

«Langileentzat iraultzaren lehen konkista garrantzitsuenetakoa zortzi orduko lanaldia izan da. Enpresa bateko produkzio-indarren antolaketak enpresaren jarduera hiru txandatan antolatzea eragozten badu, enpresak debekatuta izango du beharginei dagokiena baino ordu gehiago egiteko eskatzea. Hau da, langileek ezingo dute asteko batezbesteko berrogeita zortzi orduko lanaldia gainditu. Bereiziki kaltegarriak diren enpresetan –tabakoa-ren industrian eta adar kimikoko lan-tegi batzuetan, esaterako–, eguneko lanaldia sei edo zazpi ordura murrizten da. Emakumeek debekatuta dute gaeuz lan egitea. Gizonen kasuan, aldiz, zazpi ordura mugatzen da gaueko lanaldia. Bulegoko lana sei ordura murrizten da. Eguerdiko atsedenaldiak gutxienez ordu erdi eta bi ordu artekoa izan behar du. Langile guztiek astean berrogeita bi orduko atsedenaldia hartzeko eskubidea dute, etenik gabe. Urteko oporrak lau astekoak edo bi astekoak dira seihi-leko bakoitzaren barruan. Debekatuta dago hamasei urtetik beherako pertsonak lanerako erabiltzea, eta hamasei eta hemezortzi urte bitartekoek egunean sei ordu lan egin dezakete gehienez. Zoritxarrez, agindu horiek ez dira leku guztietan betetzen. Gerrako urte larrietan, sarritan urratu behar izan ziren agindu horiek. Askotan, presazko lanak egin behar izaten ziren berehala frontearen atzean. Gizonen oporrak



Iraultzaren ostean hartutako erabaki garrantzitsuenetako bat izan zen gizon-emakume guztiei derrigorrezko lan orokorra ezartzea. Kollontaik aipatzen zuenaren arabera, lege horrek aldaketa ugari eragin zituen emakumeen bizitzetan eta historian

lau astetik bi astera murriztu ziren, eta aparteko orduen eta gaueko lanaren kopuruak gora egin zuen etengabe, eta hamalau eta hamasei urte bitarteko haurrek egunean lau orduz lan egiteko baimena ere eman zen. 1919ko urrian, Lanerako Herriaren Komisariotzak xedapen berezi bat eman zuen, eta horri esker aldi baterako, emakumeek industriaren adar jakin batzuetan gaueko lana egin ahal izan zuten».

Lan arloko legeek, teoriarik, emakumeen eskubideak babesten zituzten. Aparteko orduak eta gaueko lana ematen zitzaienten. Emakumeek ezin zuten beren indarrak gainditzen zituzten zerreginetan jardun. Oro har, debekatuta zegoen emakumeek osasunerako kaltegarriak ziren ekoizpen-adarretan esku hartzea. Esate baterako, aipatutako xedapenetako bat da emakumeek laneginkizunetan esku hartzea, 10 libra baino gehiago pisatzen zuten objektuak igo behar zirenean. Hala ere, Kollontaik aitortu zuen, eskulan faltagatik eta es-

kura zeuden lan-indar guztiak ekoizpen-prozesuan sartzeko beharragatik, ez zirela agindu horiek betetzen.

EMAKUMEEN ASKAPENERAKO NEURRIAK

«Botere sobietarra izan da emakumeak emantzipazioa eskuratzeko baldintzak sortu dituen aurrenekoa. Mendeetan zehar emakumea esklaboa izan da. Hasieran, ekoizpen txikiaren erreinuaren pean, familiaren esklabo izan zen emakumea. Ondoren, kapitalismoaren garapenarekin, hiru arlotan zen esklabo: Estatuan, fabriketan eta familian». Armand, Inessa, 1920.

Botere sobietarrak emakume langilearen emantzipaziorako baldintza errealak jarri zituen mahai gainean, baita etxeko lanak kolektibizatzeke baldintzak ere. Emakumearen askapena ipar, Alexandra Kollontai Gizarte Laguntzarako Herriaren komisarioak hainbat proposamen mahaigaineratu zituen norabide horretan pausoak emakumeen

teko. Kollontaik bidelagun izan zituen antolatutako emakume langileak.

Boterea hartu bezain laster, boltxe-bikeek, emakumearen askapenerako legedi aitzindari bat ezarri zuten, ez-kontza zibilari eta dibortzioari buruzko dekretuak eta egoera zibilari eta etxe-ko harremanei, ezkontzari, familiari eta tutoretzari buruzko legeen kodea barne hartu zituen. Emakumeen eta haien haurren segurtasuna bermatzeko, kontsulta medikoak eta osasun-zentroen sare zabala antolatu ziren, baita haurtzaindegiak eta jantoki publikoak edo kantinak ere.

1918ko familia-kodeak emakumeen estatus legal baxuagoa indargabetu zuen eta legearen aurrean emakumearen eta gizonaren berdintasuna ezarri zuen. Familia-kodeak, halaber, seme-alaba legitimo eta ez-legitimoen arteko legezko bereizketak ezabatu zituen, haur guztiak legearen arabera berdinak izan zitezen; dibortzioa legeztatu zuen eta mantenu-pentsio mugagabea ezarri zuen premia kasuetarako, bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Legedia horri emakume langilearen legezko babesa gehitu behar zaio. Zortzi orduko lanaldiari buruzko dekretua eta lan-kodearen arabera, emakume langileek 112 eguneko amatasun-lizentzia izateko eskubidea zuten, erditu baino zortzi aste lehenago eta zortzi aste geroago, eta soldata osoa jaso behar zuten. Umeei bularra ematen zieten emakumeei ordu erdiko atsedena eman behar zitzaien hiru ordutik behin haurrei bularra emateko aukera izan zezaten.

1917ko Iraultzaren aurretik, haurtzaindegi gutxi zeuden Errusiar Inperioan. Dena goitik behera aldatu zen, ordea, boltxe-bikeek boterea hartu eta emakumeen berdintasunaren aldeko neurriak hartzen hasi zirenean, emakumeen parte-hartze aktiboa gizarte-ko nahiz bizitzako esparru guztietara hedatuz. 1920ko hamarkadan, lehen haurtzaindegi-sareak sortu zituzten, bai hirietan, bai landa-eremuetan.

1941ean, bi milioi haur sobietar joaten ziren haurtzaindegietara. 30 urteren buruan, 12 milioi ziren haur-

tzaindegien erabiltzaileak. 1959an haurtzaindegiak eta haur-eskolak bazen zituen sistema berria sortu zuten, eta horri esker Estatuak umeen gaineko ardura hartzen zuen, bi hilabete zituztenetik zazpi urte bete arte, eta modu horretan eskolara joateko aukera bermatuta zuten.

SESBen haurtzaindegiei eskolaurre-ko erakunde deitzen zitzairen, eta haurrei kalkulu eta idazketa nozioak, musika, dantza eta marrazketa txikitatik irakasten zitzaizkien.

JANTOKI ETA KANTINA PUBLIKOAK

Urriko Iraultzaren ondorengo urteetan, Estatuak langileei zuzendutako programa bat jarri zuen martxan: jantoki publikoak edo kantinak. Langileei zuzendutako jantoki haiek zentzu politiko eta ikuspegi komunistarekin jarri ziren martxan. Elikadura kolektibo antolatuaren ideia ondo egokitzen zen Sobietar Estatu gaztearen ideologiarekin; emakumea «sukaldaritzaren esklabotzatik» askatu behar zen eta askatasuna eta lana eman behar zitzaizkion. Sukaldeak lantegi bihurtu eta azpikontratatu egin behar zirela iritzita, horretarako aukeraren alde egin zuten. Beraz, iraultza sozialistarekin batera, emakume langileen eguneroko bizitzan iraultza bat eman zela esan daiteke. Sobietar Batasunak emakumeen eguneroko bizitzaren antolaketa erabat



«Botere sobietarra izan da emakumeak emantzipazioa eskuratzeko baldintzak sortu dituen aurrenekoa. Mendeetan zehar emakumea esklaboa izan da. Hasieran, ekoizpen txikiaren erreinuaren pean, familiaren esklabo izan zen emakumea. Ondoren, kapitalismoaren garapenarekin, hiru arlotan zen esklabo: Estatuan, fabrian eta familian»

INESSA ARMAND, 1920

Emakumeen eta haien haurren segurtasuna bermatzeko, kontsulta medikoak eta osasun-zentroen sare zabala antolatu ziren, baita haurtzaindegiak eta jantoki publikoak edo kantinak ere



Urriko Iraultzaren ondorengo urteetan, Estatuak langileei zuzendutako programa bat jarri zuen martxan: jantoki publikoak edo kantineak. Langileei zuzendutako jantoki haiek zentzu politiko eta ikuspegi komunistarekin jarri ziren martxan





berregituratu zuen. Izan ere, nahitaezko lan orokorraren ondorioz, emakumeen egoera erabat aldatu zen.

Sistema ekonomiko berriak pertsonen bizitzetan, ohituretan, kontzientzian eta itxaropenean nola eragin zuen aztertu zuen Kollontai. Haren arabera, «ekonomia komunistarentzat beharrezkoa den premisetako bat kontsumoaren antolaketa aldatzea da. Kontsumoaren sektorearen berrantolaketa printzipio komunisten arabera egin behar da, eta ezin da mugatu, inola ere, etorkizuneko eskariaren kalkululu ahalik eta zehatzena egitera edo dauden ondasunen banaketa justura». Hausnarketa horretatik abiatuta sortu zituzten jangela sozialak edo kantina publikoak.

«1918ko udazkenetik aurrera, eskuragarri zeuden kantina publikoak ia hiri guztietan, etxebizitza unifamiliarretako joerak ordezkatzeko eta haur zein gaztetxoentzako doako otorduak eskaintzeko. Dena den, baliabide eskasia tarteko, kantina publikoak gehiago garatzea eta ekimen hori gizarte osoarentzat praktikan jartzea zaila izan da. Hasiera batean hornidura kolektiboko sistema antolatu eta beharrezko banaketa-zubiak diseinatu genituen. Baina, zoritxarrez, hornikuntza zentral planifikaturako elikagaiak falta zaizkigu. Estatu inperialistek eraginkortasunez blokeatu dute gure herrialdea, eta, aldi berean, eragotzi dute beste herri batzuek guri produktuak ematea. Finean, baliabide eta elikagaien eskasia orokorra den garaiotan, herritarrei modu zentralizatuan bana dakizkiekeen produktuen hornikuntza blokeatu dute. Hala eta guztiz ere, kantina publikoak hirietako biztanleen errutinaren parte sendo bihurtzea lortu dugu, baita onartua izatea ere, nahiz eta hornikuntza eskasa izan» (A. Kollontai: *Emakumea gizarte garapenean*).

Kantina edo jantoki publikoetan eskaintzen zituzten elikagaiak merkeak ziren, baina asetzeko modukoak. Zerbitzuaz gozatzen zutenek, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko, xakean jolasteko edo lankideekin hitz egiteko

Komunitate berrien bidez, bizimodu komunitarioko esperientziak martxan jarri nahi izan zituzten, eta, besteak beste, arropa-garbitegi zentralizatuak, haur-eskolak, jantokiak...





aprobetxatzen zuten otorduen unea.

Gizarte Laguntzarako Herriko Komisarioak argitaratutako datuen arabera, 1919an eta 1920an, Petrograde-ko biztanleriaren ia %91 eta Moskuko %60 herri kantina publikoen bidez hornitu zen. 1920an 12 milioi pertsona elikatu ziren kantina horietan, haurrak barne. Kantinak oso denbora gutxian iritsi ziren eskoletara. Jantoki publikoetako zerbitzuei esker, gurasoei haurren otorduen gaineko zama arintzea lortu zuten; hori zen xedeetako bat. Era berean, haurrek elkarrekin jateko ohitura garatzeko aukera ematen zuten kantina publikoek.

Jantoki sozialak edo kantina publikoak, etxebizitza unifamiliarrekin alderatuta, langileei abantailak eskaintzen zizkieten instituzioak ziren, horiei esker emakume langileei lan-indarra, energia eta elikagaiak aurrezteko aukera eskaintzen zietelako. Esperientzia praktikoa horiek oso garrantzitsuak izan ziren emakume komunistentzat, disainatzen ari ziren etorkizuneko politika ekonomikorako gidalerroak ordura arte bizitako esperientzietan oinarritu behar baitziren.

ETXEBIZITZA KOLEKTIBOAK

Etxebizitzaren bueltan hartutako erabakiek ere eragina izan zuten emakumeen bizi-baldintzetan eta kontzientzian. 1917ko iraultzaren ondoren agertu ziren etxebizitza kolektiboak –*kommunalka* ere deituak–, etxebizitzaren stocka jabari publikokoa izatera igaro zenean. Agintariak hiritar dirudunen etxebizitzaren jabetza hartu eta maizter berriei ireki zizkieten ateak. 1920ko hamarkadan jende ugari mugitu zen hiri handietara, janari eta lan bila, eta migratzaile haietako askok hartu zuten ostatu etxebizitza kolektiboetan. Fabrika edo lantegi batean lan bat aurkitzeak eskubidea ematen zien herritarrei *kommunalka* batean logela bat lortzeko.

Elkar ezagutzen ez zuten askotarikoa pertsonak biltzen ziren etxebizitza mota horietan: nekazariak eta unibertsitateko irakasleak, intelektualak eta

meatzariak... Nahiz eta bakoitzak bere bizilekua zuen, bazeuden elkarbanatzen zituzten espazioak, hala nola sukalde eta komuna.

Etxebizitza horien helburuetako bat alokairuko etxebizitzak ordezkatzea zen, izan ere, sobietek banakako etxebizitzek familiak isolatzen zituztela pentsatzen zuten eta gizarte-harreman komunistak garatzeko oztopo handia zirela. Komunitate berrien bidez, bizi-modu komunitarioko esperientziak martxan jarri nahi izan zituzten, eta, besteak beste, arropa-garbitegi zentralizatuak, haur-eskolak, jantokiak... Horrela, emakume langilea askatzeko baldintzak sortzen hasi ziren; izan ere, etxeko lanak komunitatearen ardura gisa ulertzen ziren, eta ez emakumeak familia-unitatearen barruan zuen bete-behar gisa. Hala ere, etxebizitza komunek ez zuten alokatutako pisua ordezkatu, eta hiri bateko biztanle gehienak, lehen bezala, etxe partikularretan eta familietan bizi baitziren. 1928an etxebizitzaren alokairurako prezioak izoztu zituzten.

Emakume sozialistek lorpen gisa ulertzen zuten gizartearen zati handi batek hartutako jarrera, ulertzen baitzuten prest zeudela familia-bizitza tradizionalako gizarte-arauak gainditzeko. Horrela adierazi zuen Kollontaik: «Hala ere, gerta liteke oraindik bakarrik bizi diren gizon-emakume askok, eta baita familiek ere, etxe batean plaza lortzeko ahaleginak egitea, bizi duten egoera ekonomiko zailagatik bakarrik. Hala eta guztiz ere, guretzat oso interesgarria da gure etxeak, testuinguru zailean sortzen direnak, hiriko biztanle askok alokatutako etxebizitza partikularrak baino hobetsiagoak izatea alderdi askotan. Datuen arabera, 1920an 23.000 etxe zeuden Moskun. Horietatik % 40 ingurutan, hau da, 9.000 baino gehiagotan, etxebizitza-komunitate kolektiboak edo banakako etxebizitza-unitateak zeuden. Beraz, gure langile-errepublikan aurkitu ditugu dagoeneko emakumeak beren etxeko lan inproduktiboetatik poliki baina segurtasunez askatzeko baliabideak eta prozedurak».

ABORTURAKO ESKUBIDEA

Boltxebikeen gobernuak emakumeen babes sozialerako eta askapenerako hartutako neurri horien esparru eta testuinguruan ulertu behar da 1920ko azaroaren 10eko abortua legeztatze deketua. Sobietar Batasuna izan zen haurdunaldiaren borondatezko etetea legeztatu eta ospitale publikoetan doan praktikatzeko aukera eman zuen lehen herrialdea. Abortua legeztatze deketu sobietarrak hainbat lege-neurri ezarri zituen, emakumeen eta gizonen arteko legezko berdintasuna ezartzeko eta emakume langileen legezko babesa bermatzeko.

Gobernu boltxebikeak emakumeentzako eta haien haurren babeserako instituzioak sortzeko beharra azpimarratu zuen, aborturako aukera mahai-gainean utzita ere. Agintariek ahal zuten guztia egin zuten abortuaren legeztatzea emakumeak ama gisa babesteko diseinatutako politiken testuinguruan jartzeko. Dekretu sorta zabala aldarrikatu zuten eta «amatasunaren eta haurtzaroaren aldeko» kanpainak hasi zituzten. 1920ko martxoan eta apirilean, amatasunaren eta haurren lanildoen gaineko ardura formalki igaro zen Lan eta Gizarte Ongizateko komisariotzatik Osasun Publikoko Komisariotzara, eta modu horretan, Nikolai Semashko Osasun Publikoko Komisarioaren ardurapean gelditu zen lanerako arlo hori. Semashkok ama gazteentzat etxe bereziak sortzeko eskatu zuen, erditu baino lau hilabete lehenago eta hilabete geroago atsedean hartzeko eta abortuak saihesteko, batez ere oraindik seme-alabarik izan ez zuten emakumeen artean.

1920ko uztailaren 1ean, haurdun zeuden emakumeak babesten zituen deketu berri batek zortzi asteko amatasun-lizentziarako eskubidea berretsi zien lan fisikoak egiten zituzten langileei, eta denbora horretan lan-errekutamentu mota guztietatik ere askatu zituen.

Abortuaren praktikaren auzia sakonean aztertu zuen gobernuak, eta ondorioetako bat izan zen abortuak

saihesteko ezinbestekoa zela haurdunaldiaren plangintzan eta haurren zaintzan zein hezkuntzaren sozializazioan aldaketak egitea. Etxeko esklabotzaren abolizioak, aldi berean, emakumearen benetako emantzipaziorako eta familia forma berri baten sorrerarako oinarri materialak sortuko lituzkeela iritzi zioten.

HEZKUNTZA

1917ko Urriko Iraultzaren ondoren, Herriaren Hezkuntzaren Komisariotza izan zen hezkuntza publikoaren administrazioaz, kultura eta artearekin lotutako gaiez arduratu zen instituzioa. Anatoli Lunacharski izendatu zuten herriko komisario, eta horrela izan zen 1929 arte. Nadezhda Krúpskayak ere, beste askoren artean, esku hartu zuen hezkuntzaren arloko erabakietan. Komisarioan ere bazeukan bere lekua.

XIX. mendearen amaieran, biztanleriaren % 21 analfabetoa zen. Sobietarrek «Likbez» (analfabetismoaren likidazioa) izeneko kanpaina jarri zuten martxan, analfabetismoari aurre egiteko hezkuntza bulego sare bat sortuz herrialde osoan zehar. Hala ere, 1926an milioi bat pertsona baino ez ziren alfabetatu. 1939rako, bultzatutako hezkuntza programari esker, 40 milioi pertsona inguruk irakurtzeko oinarrizko trebetasunak eskuratu zituzten. Hala ere, aurrerapen handia 1930ean gertatu zen, lehen hezkuntza unibertsala indarrean sartu zenean. 1940ko hamarkadaren hasieran analfabetismo masiboaren arazoa konponduta zegoen.

SESBek Estatuaren aparatu ideologiko gisa ulertzen zuen eskola. Beraz, eskola eta hezkuntza arloa egituraren parte ziren eta sozialismoaren balioak transmititzen zituzten. Boterea hartu ondoren, sobietarrek irakaskuntza publikoa eta masen hezkuntza tresna iraultzaile gisa ezarri zituzten. Emakumeak eta landa-munduaren alfabetatzea izan ziren abian jarri zituzten hezkuntza-erreformen helburuetako bi. Ahalegin handiak egin ziren derri-gorrezko hezkuntza, unibertsala eta doakoa ezartzeko, eta lortu zen. Era

**Abortua
legeztatze
deketu sobietarrak
hainbat lege-neurri
ezarri zituen,
emakumeen
eta gizonen
arteko legezko
berdintasuna
ezartzeko eta
emakume langileen
legezko babesa
bermatzeko**







berean, ulertzen zuten pertsona bakoitzaren heziketa ez zela gelditzen eta ez zela mugatzen eskolan ezagutzak eskuratzera. Hezkuntzak prozesu pertsonal iraunkorra izan behar zuen, sozializazioan izandako esperientziarekin eta etengabeko analisi kritikoarekin aberastua.

Prozesu iraultzailerako eta ikaskuntza kolektiborako, nekazari eta langile masen alfabetizazioak lehentasuna izan zuen.

OSASUNA

Urriko Iraultzaren ostean, boltxebi-keek hutsetik hasita eraiki zuten osasun sistema berria. 1917ko Iraultzaren eta Gerra Zibilaren (1917-1922) ondorengo urteak zailak izan ziren. Estatu Sobietar sortu berriak kolera, sukar tifoida eta baztanga izurrite suntsitzailerak jasan zituen. Egoera beltz hartan sortu zen Osasun Publikoko Herriaren Komisariotza, Nikolai Semashko buru zuena.

Egoera larri haren aurrean, osasun politikak aldatzeko lan ildoak jarri zituzten martxan; horien artean osasungintza arloko hezkuntzaren hedapena, ezinbestekoa baitzen gizartea kualifikatzea gaixotasunen aurka borrokatzeko. Osasunerako hezkuntza funtsezkoa zen, gaixotasunei aurre egiteko eta aurrea hartzeko ez ezik, baita herritarren etengabeko osasuna bermatzeko ere.

Nikolai Semashkok proposatutako arreta medikoko sistema hainbat ideiatan oinarritu zen: arreta medikoa antolatzeko eta zentralizatzeko printzipio komunak, herritar guztientzako arreta medikorako sarbide-berdintasuna, prebentzio-metodo eta tratamendu bateratuak, gaixotasunen oinarri soziala ezabatzea eta neurri sanitario, epidemiologiko eta terapeutiko zabalak hartzea, haurrei eta emakumeei lehentasuna emanez. Sobietar Batasuneko 1936ko Konstituzioan doako osasun-arretarako eskubidea oinarritzko eskubide gisa ezarri zen, hezkuntzarako eskubidearekin, lanerako eskubidearekin eta abarrekin batera.



Ulertzen zuten pertsona bakoitzaren heziketa ez zela gelditzen eta ez zela mugatzen eskolan ezagutzak eskuratzera. Hezkuntzak prozesu pertsonal iraunkorra izan behar zuen, sozializazioan izandako esperientziarekin eta etengabeko analisi kritikoarekin aberastua

Osasun sistema sobietarra doakoa eta zentralizatua zen. Osasun-langile guztiak, espezialitate desberdinetakoak, Estatuko enplegatuak ziren. 600.000 medikuk baino gehiagok eta kualifikazio ertaineko bi milioi langilek zaintzen zuten SESBeko herritarren osasuna. Herritarrek bizi ziren lekuan bertan edo handik hurbil jaso zezaketen arreta medikua. Aurrerapen ikaragarria izan zen hura. Urte gutxiren buruan izugarri egin zuen gora Sobietar Batasunean zeuden ospitaleen kopuruak.

Gaixoen edo pazienteen gertuko arreta-puntua lehen sorospenetarako postuak ziren. Haien ondoren, pazientek beren barrutietako polikliniketara joan zitezkeen. Beharrezkoa bazen, barrutiko edo hiriko ospitaleetan jasotzen zuten laguntza. Kasu bereziki larrietan, pazientek erakunde mediko espezializatuetara bidaltzen zituzten. Haurrentzako antzeko sistema bat ezarri zen.

Osasungintza ez zen langile eta nekazariei zuzendutako zerbitzu soila. Langile sindikatuek, nekazaritza kooperatibek, sobietek eta, oro har, biztanleek aktiboki parte hartzen zuten bere plangintzan; osasun sareak jarri baitzituzten martxan. Sobietar Batasuneko osasun-sistema XX. mendeko lehen hamarkadetakoa osasun-antolaketa aurreratuena zen. Osasun arloko politika sozialistek mediku, erizain eta parteren prestakuntza garatzea ahalbidetu zieten. Horrela, bada, bizi-itxaropena handitu zuten, haurren eta amen hilkortasuna gutxitu zuten, gaixotasun infekziosoei eta sexu-transmisiokoei aurre egin zieten...

Sobietar Batasunean arreta handia jarri zen tratamendu medikoetan, baina baita metodo prebentiboetan ere. Sendagai ugari sortu ziren, batez ere gaixotasun benereotan, alkoholismoan eta tuberkulosian zentratuta. Prebentzio neurri orokorretako bat injekzioa zen, derrigorrezkoa denentzat: hasi umeengandik eta helduenganaino. Ohikoa zen herritar bati lan bat ukatzea txerto zehatz batzuk jasotzea onartzen ez



Osasunerako hezkuntza funtsezkoa zen, gaixotasunei aurre egiteko eta aurrea hartzeko ez ezik, baita herritarren etengabeko osasuna bermatzeko ere

bazuen.

Sobietar Batasuneko arreta medikoaren sisteman, ospitaleak eta poliklinikak ez ezik, erietxeak eta langileentzako deskantsurako zentroak edo bainuetxeak ere sartzen ziren. Erietxeak tratamendu medikoaren zati jarraitua ziren, eta bainuetxeek ere zeregin garrantzitsua zuten errehabilitazioan. Nobleziarenak izandako jauregietan egokitu zituzten langileentzako, nekazariarentzako zein soldaduentzako bainuetxeak. Horren adibide da, esaterako, Livadiako jauregia.

Erreportaje honetan jasotakoak Sobietar Batasunaren lehen urteetan gizarte-babeserako hartutako neurriei buruzko zertzelada batzuk baino ez dira. Esperientzia hartatik irakaspenak ateratzeko ezinbestekoa da arlokako azterketa sakonagoa egitea

KOLABORAZIOA

LANAREN SOZIOLOGIA FRANTZIARRA ETA SISTEMA SOBIETARRAREN ANALISIARI EGITEN DION EKARPENA





Testua
Alberto Riesco

Lanaren soziologia frantziarra nagusiki Bigarren Mundu Gerraren ondoren garatu eta sendotu zen, eta paper garrantzitsua izan zuen herrialde horretako soziologian, oro har. Gatazka beliko haren ondoren, Frantziak, *modernizazioaren* proiektu handinahia hasteko xedez, soziologia-arloan bilatu zuen babesa: pentsatu zen diziplina horretatik eratorritako jakintza aplikatua erabilgarria izan zitekeela, besteak beste, enpresan, lan-merkatuan, ekoizpen-prozesuen antolakuntzan, lan-harremanen ordenamenduan, eskola-sisteman, administrazio publikoan edo hiri-planifikazioan egin nahi ziren erreformak diseinatzeko eta ezartzeko. Garai hartan, fabriketako eta enpresetako ateak zabaldu zitzaizkien soziologoei, haiek erakunde horien eta ekoizpen-prozesuen inguruan ikertu, eta enpresen *arrazionalizazioa* eta hobekuntza azter zezaten: ekoizpena handitzea, lan-gatazkak murriztea, ekoizpen-prozesuak automatizatzea, langileak teknologia eta lan-metodo berrietara egokitzea, etab.^[1]

Lanaren soziologia frantziarraren zati handi bat, beste herrialde ugari-tako lan-soziologia bezalaxe, Estatuak sustatutako proiektu modernizatzailearen zerbitzura jarri zen, hots, uneoro termino kapitalistatan formulatutako proiektu erreformista baten zerbitzura. Hamarkada haietan, lanaren soziologiaren jo-puntua ez zegoen Sobietar Batasunean edo sozialismo erreal zerritzen herrialdeetan, ezpada lanaren antolakuntzarako metodoetan (taylismoa, ekoizpen-prozesuetako kate-

-lanaren eta automatizazioaren garaipena, kronometrajea eta aprobetxatu gabeko denboraren kontrako borroka, lanaren banaketa eta espezializazioa, etab.), zeinak beste ekonomia kapitalista arrakastatsu batzuetan aplikatzen baitziren (AEBn, Erresuma Batuan, Japonian,...), nahiz eta horiek ikuspegi kritiko batetik aztertu edo kezka agertu metodook aplikatzeak nola eragin ziezaikeen langileei eta gizartei.

Horren adibide garbia dira sasoi haietan Georges Friedmann soziologoak egin zituen lanak; gerora, harena bilakatu zen lanaren soziologia frantziarraren korrante hegemonikoa (ez, ordea, bakarra). *Problèmes humains du machinisme industriel* (1947), *Où va le travail humain?* (1950) eta *Le travail en miettes* (1956) bezalako lanak lanaren soziologia frantziarrean AEBko esperientzia industrialari eman zitzaion lehentasunaren lagin argia dira (taylorismoa eta fordismoa, Giza Harremanen Eskola eta Western Electric Company-ren esperimentuak, beste beste). Alabaina, esperientzia sobietarrean ere ikus daiteke Friedmannen eragina. Egile hau «humanista» esaten zaion lanaren soziologiaren defendatzailea zen, eta 1930eko hamarkadan zehar hainbat aldiz bisitatu zuen SESB. Esperientzia sobietarraren gainbeheraren inguruko analisi politiko batzuk ez ezik (*De la Sainte Russie à l'URSS*, 1938), Friedmannek gogoeta ere egin zuen, bere lehenengo lanetatik, zer eragin izan ote zuten SESBn herrialde kapitalistetan berak egin zituen ikerketen ardatz izan ziren dimentsio orokorrek, hala nola makinismoaren eta gizarte industrialen garapenak eta lanaren fragmentazioa handitzeak («lana birrintzea»). Lan horietan (*Problèmes du machinisme en URSS et dans les pays capitalistes*, 1934; *Le travail en miettes*, 1956), Friedmanek azpimarratu zuen lanaren banaketa handitzea, lana mila puskatan banatzea zeregin erraz eta errepikakorretan, langileen espezializazioa, ekoizpen-prozesuetan gero eta makina gehiago egotea, eta faktore horietatik eratorritako arazoak (langileen desmotibazioa,

egindako lanari zentzurik ez bilatzea...) ez zirela gizarte kapitalistetakoa bakarrik, eta SESBn ere ikus zitezkeela, non 1918. urtean dagoeneko Leninek metodo tayloristak ezartzearen alde egin baitzuen, industria sobietarreko produktibitatea hobetzeko, gerra zibila irabazteko eta iraultza komunista indartzeko helburuz.

Hala eta guztiz ere, lanaren soziologia frantziarrak eredu sobietarrari egin zion ekarpena aztertu nahi bada (ez lan-prozesuak antolatzeko moduei eta teknikei dagokienez egin zuen ekarpena bakarrik, baita esperientzia haren bilakaerari, ezaugarriei eta kontraesanei dagokienez egindakoa ere), soziologia-adar horren sustatzaile handia izan den beste egile bat ere aipatu beharra

Iraultza boltxebikea ez zen errusiar iraultzat hartu, ezpada europar iraultzat, edo are, munduko iraultzat. Nagusitzen zen ordena kapitalista hankaz gora jartzera begirako mugimendu bat





dago: Pierre Naville. Georges Friedmannekin batera, Naville «Lanaren soziologiaren» lehenengo tratatuaren egilea izan zen (jatorriz *Traité de Sociologie de Travail*, 1961-1962). Hala ere, zerikusi txikia dute batak eta besteak proposatzen duten lanaren soziologiak. Friedmannek bezala, Navillek ere esperientzia sobietarra lehenengo pertsonan ezagutzeko parada izan zuen, 1927an SESBr Urriko Iraultzaren hamargarren urteurrena ospatzera gonbidatu zutenean. Bertan, Victor Serge eta Leon Trotsky ezagutu zituen, bat egin zuen haien tesiekin, eta hala, ezkerreko oposizio esaten zitzaionera atxiki zen; ondorioz, Frantziako Alderdi Komunistatik kanporatu zuten 1928an, eta militantzia trotskistara igaro zen. Ha-

markada batez baino gehiagoz, Navillek elkarlan estuan jardun zuen Trotskyrekin, eta gerora beti aldarrikatu izan zuen haren figura, desadostasunak desadostasun, baita mugimendu trotskistatik aldendu ondoren ere (ikus, adibidez, 1962ko *Trotsky vivant* liburua). Edonola ere, Navillek heriotzara arte jardun zuen aktibo Frantziako eszena politikoan, eta beti ahalegindu zen bere lan intelektualaren independentzia eta zorrozatasuna babesten, eta ihes egiten «intelektual komunistaren» figurari (horren harira, interesgarriak dira Sartrekin izan zituen hika-mikak) zein «alderdiko posizioek» agintzen zuten *alderdikeria itsuari*.

Esperientzia sobietarra Navillen obra guztian zehar dago presente (adi-



Navillen eta Rollen ustez, irekitzeko premia hori, sistema *unibertsal* bilakatzeko behar hori kontraesan atzeraezina zen sistema sobietarrarentzat (gogora dezakegun, nazio-eskalan ulertutako sistema zela), horrekin bere burua sostengatzeko aurre egin beharreko erronka eta ziurgabetasunak handitzen zirelako (zalantzazko itun politikoak, zer ibilbide armamentistiko hartu, etab.)

bidez, Perestroikaren eraginak aztertzeko dituen *Gorbachev et la réforme en URSS* liburua 1992an argitaratu zuen, hil baino urtebete lehenago). Alabaina, sistema sobietarraz egin zuen analisi handinahi eta formalizatuena *Le Nouveau Léviatan* izeneko zazpi liburukietan aurki daiteke; 1957 eta 1987 urteen artean argitaratu ziren eta horietako askok esperientzia sobietarra dute ardatz. Sobietar Batasunaren historia bizi garen mundu honen berezko osagaia da, hau da, ez dago munduaren egungo konfigurazioa ulertzerik esperientzia hori eta haren inguruabarrak zorrotz aztertu gabe. Navillen aburuz, SESB emantzipazio-mugimenduen bilakaerarako funtsezko eztabaidagaia ez ezik, kapitalismo globalaren funtzionamenduaz galdegiteko aukera ere bazen. Hain justu, Navillen oinarritzko hipotesietako batek defenditzen du Sobietar Batasuna nazio kapitalistek osatzen zuten trukeen munduaren espazio berberaren zatia zela, eta bertan parte hartzen zuela. Ezbairik gabe, berezitasun batzuk zituen, eta horiek identifikatzen ahalegindu zen Naville –eta gero, Pierre Rolle ere bai– baina aipatutako herrialde horiekiko antzekotasunak ere bazituen, zeinekin soziologoa sostengatzen saiatu baitzen mundu global partekatu bat genuela, eta krisialdiek jatorri berbera zutela altzairuzko oiha-laren alde batean zein bestean (nahiz eta sintomatologia, tratamendua eta emaitzak ez ziren berdin-berdinak).

Navillen esanetan, iraultza boltxebikea ez zen errusiar iraultzat hartu, ezpada europar iraultzat, edo are, munduko iraultzat. Nagusitzen zen ordena kapitalista hankaz gora jartzeraren begirako mugimendu bat, Europako gainerako potentziak ere (bereziki Alemania) iraultzara batzea eskatzen zuena. Buruzagi boltxebikeek ziurtzat zuten beste herrialdeen mugimendu hori. Ordea, mundu osoko iraultza horren porrotak norabide aldaketa ekarri zuen, eta iraultza sobietarra iraultza nazional bilakatu zen (sozialismo nazional baten eraikuntza izan zen). Mundu osoan antolatutako kapitalismoa mundu osoko

sozialismo batez ezin ordezteak SESB kapitalismoak definitutako ekoizpen-estandar eta -mekanismoetara egokitzera behartu zuen, eta lehenago nazio kapitalistetan ezagutu ziren printzipio eta indarkeria berberetan oinarritutako industrializazio-prozesu azeleratu bat izatera, baldin eta biziraun nahi bazuen (nekazaritzako eskulana industriari igaroaraztea, diziplina industriarekiko mendekotasuna...). Horrela, SESB kapitalismoarekin lehian egon zitekeen (ekonomian, arlo militarrean, zientzian, etab.) mundu osoan antolatutako truke-espazio partekatu batean, baina kapitalismoaren aldean, ez zuen kapitalaren mundu-mailako iturri nagusiak eskuratzeko aukerarik eta alimaleko zailtasunak zituen *eremu sozialistako* gainerako nazioekin batera (Txina, Yugoslavia...) espazio ekonomiko *alternatibo* bat antolatzeko.

Horrek guztiak, Navillen esanetan, une batean edo bestean sistema sobietarra kolapsora eramango zuen, aurreikusterik ez bazegoen ere hura zer-nolakoa izango zen (Navillek dagoeneko egina zuen diagnosi bat 1947an, artean estalinismoaren oposizioak ere sistema sobietarra erreformatu zitekeela uste zuela). Navillek zioen prozesu industrializatzaile sobietarraren *arrakastak* SESB are gehiago bultzatuko zuela irekitzera eta mundu-mailako sistemako –azken batean, horren parte zen– trukeetan parte hartzera (horretara zeuden bideratuta, besteren artean, Gorbachov-en Perestroika erreformak). Irekitze hori, Rollek dioen moduan, zehazki, behartutako industrializazio-prozesua agortu zenean eta hiritar sobietarrek desira zuten araututako mugikortasun sozialeko prozesuak eten zirenean gertatu zen.

Navillen eta Rollen ustez, irekitzeko premia hori, sistema *unibertsal* bilakatzeko behar hori kontraesan atzeraezina zen sistema sobietarrarentzat (gogora dezakegun, nazio-eskalan ulertutako sistema zela), horrekin bere burua sostengatzeko aurre egin beharreko erronka eta ziurgabetasunak handitzen zirelako (zalantzazko itun politikoak, zer







ibilbide armamentistiko hartu, etab.).

Esperientzia sobietarra *Estatuko sozialismo* gisa eratu zen, eta Estatuak zuzendutako industrializazio-prozesu azeleratu bat martxan jartzera zegoen bideratuta. Rollen ustetan, Estatua bera zen prozesu horrek zekarren kapitalaren eraketaren eta erabileraren erantzulea. Halako eraldaketa-prozesu bat gauzatzeko tresna nagusia «plana» (planifikazioa) dela esan izan da; itxuraz nonahi zegoen mekanismo bat zen, eta hari esker lurralde sobietar osoan ekoizpenaren eta kontsumoaren artean definitutako banaketak eta portzioak aplikatu zitezkeen. Hala eta guztiz ere, Navillek eta Rollek, biek jarri zuten kolokan planifikazioa ulertzeko modu hori (gauza ohikoa, haren aldekoen zein kontrakoaren artean), eta merkaturak ordeztzeko (adostutako) mekanismotzat hartu zuten. Planifikazioaren eta merkatuaren arteko oposizio (falsu) hori ontzat eman beharrean, Navillek (geroago, baita Rollek ere) erakutsi zuen sistema sobietarraren oinarria, egiaz, soldatak (nagusiki monetarioak) lan-gaitasunekin trukatzear zetzala, eta soldatek ekoizpen-gaitasun horiek

erabiltzean sortutako produktuaren zati bat konpentsatzen zutela.

Bestela esanda, haren ustez, Estatu Sobietarraren oinarria gainerako merkatuen existentzia beharko lukeen lan-merkatu bat litzateke, nahiz eta merkatu horiek guztiak planaren estandarizazioari, bitartekaritzari arauiei lotuta leudekeen. Beraz, ez litzateke besterik gabe sozialalki ekoiztako aberastasuna birbanatzen duen sistema bat, maiz baieztatutako izan den moduan; izan ere, hala izateko ondasun guztiek doakoak behar lukete izan, baita lan-indarrak ere, eta hori ez zen betetzen. Sistema sobietarra ezaugarritzen zuen enpleguaren egonkortasuna gorabehera (ohikoena langileek beren lan-ibilbide osoa enpresa bakarrean egitea zen), langileen joan-etorriko mugimenduak ere esanguratsuak ziren (baita borondatezkoak ere, «autokaleratzeak») (Rolle, 2009:88). Eskulanaren egiturazko eskasiaren eraginez, enpresa ugari arazo handiak zituzten planak ezarritako helburuak betetzeko behar adina langile izateko. Horren guztiaren ondorioa zen enpresek hainbat estrategia abiarazten zituztela langile berriak



«Soldatapekoen kolektiboak, Estatuaren bidez, metaketarako tasa global bat ezartzen zion bere buruari (...). Izan ere, planifikatutako sistemaren kapitala kolektiboaren premien pean eratzen zen, talde bakoitzak merkatu trukeetatik bere buruarentzat ahalik eta soldatarik altuena eta etekin handienak eskuratzeko egiten zuen ahaleginaren bidez, eta horrek besteak inbertsio kolektiboari haiek baino intentsitate handiagoan laguntzera behartzen zituen»

PERRE ROLLE (2017: 84-85)

erakartzeko eta lanean ari zirenak lana utz ez zezaten, langileen soldata zuzenaz eta zeharkakoa baliatuz: kalitate hobea zuten etxebizitzak, osasun- eta hezkuntza-sistema propioak, garraioa eta ekonomatoak eskaintzen zizkieten, besteak beste. Finean, horrek guztiak lan-indarra mugitzeko eta erabiltzeko merkataritza-mekanismo bat eta egiazko lan-merkatu bat sortzen zituen, zeinak soldata-bereizketa handiak sortzen baitzituen, eta horrek, era berean, planaren aurreikuspenak desorekatzen eta tenkatzen zituen.

Pierre Rollen ondorengo analisiak (2009) berretsi egin zituen Navillen planteamenduok, erakutsiz egunero-ko errealtatean Plana ez zela botere politikoaren mendeko ekonomiaren dinamika menderatzeko gai zen mekanismo ahalguztiduna, ezta hurrik eman ere. Rollek, halaber, agerian utzi zuen enpresa sobietarretan ez zela bere koherentzia nazioaren ekonomia osora zabaldu nahi zuen Planaren aginduei eta arauari jarraikiz bakarrik egiten. Planak ezartzen zuen lanerako araubideak, hau da, aurreikusten ziren zeregin guztiak betetzeko definitzen zituen denbora-tarteek, planifikazioaren organo zentralari ekoizpenaren emaitzak definitzen eta aurreikusten laguntzen zien, eta baita ekoizpen hori gauzatzeko behar ziren zereginak eta

baliabideak Batasuneko enpresa guztien artean banatzen ere. Bestela esanda, teoriarik, enpresak edo haiek ematen zituzten datuak behatuz eta horiek produktibitatearen bilakaera aintzat hartzen zuten indizeen bidez zuzenduz, era zentralizatuan ezartzen zituzten enpresei esleitutako soldata-funtsak eta enpresa horiek beren langileei ordaintzen ziena ere (ibid.: 143).

Ordea, Planaren errealtatea puskaz konplexuagoa zen: espazioak gatazkatsu bilakatzen zituen, eta praktikan, espazio horietan etengabe jartzen zen zalantzan eta birdefinitzen zen lan-araudia. Sobietarren botere zentralak lan-araudia ezartzeko gatazka eta negoziazio ugari behar izaten ziren, zeinen bidez hainbat aktore mobilizatzen baitziren (ministerioak, eskualdeak, enpresak, langileak) beren interesen arabera lan-denbora horren kalkuluan esku-hartzeko. Enpresek, lan-arauen eta ekoizpen sobietarren gune nagusia ziren aldetik, beren funtzionamendua ezinbestean egokitu behar zuten ezarritako araua bete zezaten, eta Planak ezarritako emaitzak lortu behar zituzten, baina emaitza horiek oso eztabai-datuak ziren, eta enpresak berak paper garrantzitsua zuen haien ezarpenean. Enpresa sobietarrek, mobilizazioaren bidez, ahalik eta ekoizpen-baldintza mesedegarrienak lortu nahi zituzten. Prozesu horren bidez, enpresak (eta bertako kideek) aurre egin behar zion Planak zekarren autoritate zentralari ez ezik, baita beste enpresa sobietarrei (eta bertako kideei) ere, beste horiek ere Planaren baldintza optimo horien alde borrokan ari baitziren (ibid.: 94-96).

Enpresetan, lanerako metodo eta prozedurak, maiz behar bezala formalizatuta ez zeudenak, lantaldearen barnean ezartzen eta arautzen ziren, eta horrek planifikazioaren araubide teknikoaren eta langile bakoitzari ezarritako plan efektiboaren arteko distantzia handitzen zuen (ibid.:107). Lantaldea ez zuen Planak ezartzen (nahiz eta hark autonomiaren inguruan kontrol motaren bat izan zezakeen); haren

Errealitatean, Sobietar Batasunean, mendebaldeko ekonomia kapitalistetan bezalaxe, kapitala merkatu-trukeen bidez eratzen zen, eta Estatuak arautu zitzakeen truke horiek, baina guztiz deuseztatu ez

osaera, tarifak, funtzionamendua eta erreprodukzioa neurri bateraino bere irizpide eta logika propioen pean zeuden, eta horiek ez ziren beti Planak adierazten zituen behar eta lehentasunekin koherenteak (ibid.: 142 eta 164). Soldatapekoek praktikan zituzten eskumenak ere lantaldearen bertan ezarritakoak (edo aitortutakoak) izaten ziren (ibid.: 139). Gauzak horrela, enpresa sobietarrek beren langileei eusteko abiarazten zituzten praktikak, lantaldeen negoziatzeko autonomia edota enpresaren zentraltasunak, Planetik eratorritako araubideen definizioan eta aplikazioan, aukera ematen zuen hipotesi hau baztertzeko: Sobietar Batasunak merkatuko trukeak ezabatu zituela Planaren bidez horiek koordinatutako estatu-aginduez ordeztu zituelako. Era berean, ekonomia sobietarra mugatua eta botere politiko zentralaren burokraziak zorrotz babestutakoa zelako irudia baztertzeko aukera ere ematen zuen.

Errealitatean, Sobietar Batasunean, mendebaldeko ekonomia kapitalistetan bezalaxe, kapitala merkatu-trukeen bidez eratzen zen, eta Estatuak arautu zitzakeen truke horiek, baina guztiz deuseztatu ez (ibid.: 41). Enpresa sobietarretan sortutako kapitala kendu

egiten zen, eta zentroan banatzen zen Planaren bidez; ondorioz, soldata- eta ondasun-tasa mugatzea nahastu egiten zen Planak berak kontsumo- eta ekipo-ondasunak sortzen zituzten industria-adarretan banatzen zituen baliabideekin (ibid.:40). Banaketa hori ez zen gertatzen merkatuan prezioekin jokatzuz, ezpada planean ahalik eta baldintzarik onenetan parte hartzeko enpresek beren artean (langileak eta kudeatzaileak barne) zuten borroka zuzenaren bidez. Liskar horren helburua ekoizpen-talde batzuei zein besteei itzuliko zitzairen soberakin orokorraren zatia lortzea –inbertsioetan eta etekinetan– eta soldata zuzenak hobetzea zen. «Langile-taldeak elkarren kontrako gatazka saihestezinetan sartu ziren, arduratuta zeudelako kapitala ekoizteko zeregina establezimendu, eskualde eta korporazioen artean nola banatzen zen» (Rolle, 2017:84). Horrela, esplotaziorako mekanismo orokor aldeaniztun bat jarriko zen martxan (*elkarrekiko esplotazioa*), zeina, Navillen iritziz, Estatu Sobietarreko sozialismoaren berezitasun nagusi bilakatuko baitzen. Rollek, Navillen analisia berrartuz, honelaxe adierazi zuen: «soldatapekoen kolektiboak, Estatuaren bidez, metaketarako tasa global bat ezartzen zion bere buruari (...). Izan ere, planifikatutako sistemaren kapitala kolektiboaren premien pean eratzen zen, talde bakoitzak merkatu trukeetatik bere buruarentzat ahalik eta soldatarik altuena eta etekin handienak eskuratzeko egiten zuen ahaleginaren bidez, eta horrek besteak inbertsio kolektiboari haiek baino intentsitate handiagoan laguntzera behartzen zituen» (Rolle, 2017: 84-85). Navillek eta Rollek egindako analisiak, beraz, errealitate sobietarra gaur egungo soldata-sisteman ikus daitekeen historiaren bilakaera globala eboluzio eta tentsioetan kokatzen du, eta ondorioz agerian jartzen dute hura sortu izana, erori izana, edota izan zituen ezaugarriak eduki izana ezin zela biolentziaz edo totalitarismo politiko deskontrolatua ez ziren ezein logikatik kanpo zegoen anomalia ulertezintzat hartu. /

OHARRAK

[1] Ildo honetan egindako ikerketa batzuk nahiko berriak dira, adibidez: Lucie Tanguy (2011), *La sociologie du travail en France. Enquête sur le travail des sociologues, 1950-1990*, Paris, La Découverte; edota Anni Borzeixen eta Gwenaëlle Roten (2010) *Genèse d'une discipline, naissance d'une revue: Sociologie du Travail*, Paris, Presses Universitaires de Paris Ouest.

[2] Pierre Navillek lanaren soziologian egin zituen planteamendu nagusienak gaztelaniaz txukun laburbiltzen dituzte lan hauek: Jorge García (2001), «Pierre Naville y la otra sociología del trabajo», *Política y sociedad*, 38:197-216 eta Jorge García (2009), «Explica el trabajo la sociedad? En torno a la sociología del salariado de Pierre Naville», *Laboreal*, 5 (2).

[3] Pierre Naville (1975) *La révolution et les intellectuels*. Paris, Gallimard. [Bertsio honek badu gaztelaniazko bertsioa: *La revolución y los intelectuales*, Barcelona, Galba Edicions, 1976].

[4] Pierre Rolle izan da Navillen Frantziako kolaboratzaile eta jarraitzaileetako nagusia. Pierre Rollek Sobietar Batasunaren eta Errusia postkomunistaren inguruan egin zuen lan nagusia hau da: *Le travail dans les révolutions russes, De l'URSS à la Russie: le travail au centre des changements*, Lausana, p. 2, 1998 [Liburu honek badu gaztelaniazko bertsioa: *De la revolución del trabajo al trabajo revolucionado*, Madril, Traficantes de Sueños, 2009]. Bertan, Navillen planteamenduak berrartzen eta zabaltzen ditu.

[5] Navillek SESBez zituen ideien errepaso labur hau Pierre Rollek (2017) Navillen analisisaz egiten duen interpretazioan oinarritzen da: «¡Una misma crisis de Este a Oeste? Ensayo sobre Pierre Naville», *Sociología Histórica*, 8: 65-89.





**SOBIETAR
BATASUNA:**
**autodeterminazio-
rako eskubidea,
federalismoa
eta nazio auzia
ebazteko beste
proposamen batzuk**



Testua
Aingeru Otxotorena

Azken urteotan, ez dira gutxi izan nazio auziaren inguruan altxatu diren ahotsak. Ulerkera, logika, zein posizio politiko ezberdinetatik heldu zaion gaia izaki, eman diren azalpenak ere askotarikoak izan dira. Erreportaje honen helburua ez da inondik inora ebazteke dauden eztabaidei erantzuna ematea, eztabaida horiek elikatu ditzakeen argipen historiko bat ematea baizik. Urriko Iraultzaren urteurrena balliatuz eta horrek eskaintzen

didan abagunearekin, gaiarekiko hurbilpen bat egiten ahalegindu naiz. Sobietar Batasuna, federazioa, autodeterminazio eskubidea, Lenin, Stalin... zalantzan nago kontzeptu eta izen gehiegi ez ote diren erreportaje bakarrerako. Ziur nago, ordea, horietako guztiak (baita aipaturikoak baino askoz gehiago ere) ezinbestekoak direla dagokigun gaia ahalik eta modu egokienean garatu ahal izateko.

ZER DA NAZIO AUZIA? KOKAPEN HISTORIKOA

Ezin esan daiteke, beste kontzeptu zein kategoria batzuekin alderatuta, tradizio marxistak nazioaren zein honi dagozkion auzi ezberdinen inguruan teoria gehiegi ekoitzi duenik. Aferaren ulerkera orokorrari baino, historian zehar hartu izan diren posizio politiko taktiko ezberdinei egiten zaie erreferentzia jaso ditugun erreferentzia bibliografiko gehienetan. Horietako garrantzitsuenetako bat da Sobietar Batasuna eta horrek nazio auziarekin zein autodeterminazio eskubi-

dearekin eduki zuen loturarena.

Nazioak askatzeari eta haien garapen askearen baldintzei dagokien auzia da eskuartean duguna. Nazio auzia ikuspegi historikoarekin aztertu behar da, haren edukia eta esanahia garai batetik bestera aldatzen baitira. Nazioak sortu zirenean, nazioaren auzia feudalismoa eraistearekin eta herrialdea askatzearekin lotuta zegoen. Inperialismoaren garaian, nazio auzia estatuen artean planteatutako arazo bihurtuta, herri kolonialen askapenari buruzko auzi orokorrarekin lotu ohi da, eta arazo nazional eta kolonial izatera pasatu

**Manifestu
Komunistak
dioenez, langile
klasea nazioartekoa
da, baina, aldi
berean, nazio jakin
batean garatzen du
bere ekintza**



da, aldi berean. Nekazarien auziarekin estuki lotuta egon den gaia ere bada, mugimendu nazionalen parte hartzen zuen masa nagusia nekazariak osatu izan baitute historiako pasarte garrantzitsu batzuetan. Urriko Iraultzarekin hasi zen iraultza sozialisten eta nazio askapenaren garai loriatsuak.

Ideologo burgesen aburuz, nazio auzia konpontzeko bide bakarra nazioen isolamendua da —eta horrek, berez, haien artean etsaitasuna areagotzen du, batzuk besteen mende jartzen ditu—, baina Urriko Iraultza Sozialistak beste bide bat, bide iraultzaile bat, jarrai-

tzeko aukera eta egokitasuna erakutsi zuen. Kapitalismoa deuseztatzeko eta uztarri nazionalaren erabateko likidazioa egiteko bidea, herrien adiskidetasuna ezartzeko bidea.

Erregimen sobietarra ez zen mugatu nazioen eskubide berdintasuna aldarrikatzera. Kontrara, beharrezko guztia egin zuen herrien arteko desberdintasun ekonomiko eta kulturalarekin ahalik eta azkarren amaitzeko. Herrien arteko laguntzan eta, batez ere, elkartasunean oinarrituta, sobietar errepublika nazional guztiek besteak beste, industria modernoa sortu zuten beren lurraldeetan, espezialista nazionalak, langileak eta intelektualak prestatu zituzten, kultura bat garatu... Hori guztia, nolabait esatearren, nazioarena bera-rena zen bere formagatik eta sozialista edukiagatik.

Marx eta Engels ere arduratu ziren zapalkuntza nazionalarekin lotutako aferez. Egia da ez dagoela auzi horiei buruzko tesi teoriko eta politikoak definitzen dituen liburu edo testu globalik. Hala ere, haien idazkietan, eta bereziki haien arteko korrespondentzian, aipamen ugari daude klase borrokaren eta XIX. mendearen erdialdean, proletargoaren batasunaren eta herrien askatasunaren artean zeuden arazo konplexuei buruz.

Manifestu Komunistak dioenez, langile klasea nazioartekoa da, baina, aldi berean, nazio jakin batean gartzten du bere ekintza (nazio garatua eta bateratua izan daiteke, edo beste nazio batzuk zapaltzen dituen nazio bat, edo nazio zapaldu bat); beraz, kontuan hartu behar du klase gisa garatzeko. Eta, gainera, Marxek esaten duenez, klase esplotazioa indargabetzen den neurrian, nazio baten zapalkuntza ere indargabetuko da. Garrantzitsuena, ekintza politikorako erabakigarriena ekuazioaren bi elementu horien arteko erlazioa da, klasea eta nazioa.

NAZIO AUZIAREN HIRU ALDIAK

Tradizio Marxistak hiru aldi edo garai ezberdin bereizi izan ditu nazio auziaren aferari dagokionez. Lehenen-



Sobietar herrien arteko lankidetza eta kidetasuna helburu izanik, uztarri nazionalak likidatu eta nazio sozialista berriak eratzeko garaia izan zen. Burgesiak era argi bat du afera hau ebazteko: nazioak zatitu, gorrotoa hauspotu, nazio bat bestearengandik esklabizatu eta abar

go aldia feudalismoaren abolizioari eta kapitalismoaren garaipenari loturiko aldia litzateke. Mendebaldean (berezi-ki) nazioak garatzen hasten diren unea. Nazioen agerpenak lotura zuzena du kasu honetan estatu zentralizatuen sorrerarekin. Esan daiteke, eta hala ulertu da, Europa ekialdeko herrialdeak izan zirela estatuen sorrera berandu samar eman zutenak. Horren kausa nagusia turkiar zein mongolen aurkako gerrateak izan ziren. Egoeraren nolakotasunak behartuta, estatu multinazional bezala ezagutu izan direnak sortzen hasi ziren. Gisa hartako estatuetan, indar gehien edo bilakaera azkarrena zuen nazioa, nazio menderatzaile bilakatu ohi zen beste nazioak bere menpeko bilakatu.

Europa mendebaldean nazio askapen borroken arrastoan sortu ziren nazioak. Nazio askapen borroka horiek lotura zuzena zuten absolutismoaren gainbeherarekin, beste zenbait arrazoen artean. Europa ekialdean, berriz, nazio zapalkuntza indarrean zelarik, mugimendu nazionalista burgesek beren borroken hasierari ekin zioten. Nazio auzia gatazkak sortzen hasi zen.

Bigarren garai edo aldia inperialismoaren sorrerarekin hasi zela esan dezakegu. Ordura arte, nazio auziak ez zuen estatu multinazionalen markoa gainditu eta, Europako herrialde gutxi batzuentzat izan ezik, garrantzia handirik ez zuen gaia dela esan dezakegu. Inperialismoaren gorakadak, ordea, aldaketa nabarmen bat ekarri zuen eta nazio auzia nazioarteko auzi bilakatu zen. Herrialdeak kolonizatzeko norgehiagokan sortu ziren herrialde inperialisten arteko gatazkek, argiki erakusten digute estatu multinazionalen existentziaren oinarria zapalkuntza nazional eta kolonialarekin estuki lotuta dagoela. Auzi honetan ere ezin dugu albo batera utzi proletalgoak egoera orokorrari ezarri zion klase ikuspegia. Proletalgoak, herrialdetik herrialdera egoera oso ezberdinak bizi bazituen ere, garai hartan erakutsi zuen herrialde kapitalista garatueta proletalgoak zituen interesak, nazio askapen borro-





Sobieten Boterearen izaera bera —nazioartekoa, klase edukiari dagokionez—, kanpoko erasoen aurkako defentsa beharra eta eraikuntza sozialistaren beharra izan ziren sobietar herriak elkarrengana hurbiltzeko eta estatu multinazional bakar batean lotzeko baldintza nagusiak. 1922ko abenduaren 30ean sortu zen Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna, aurrekaririk izan ez zuen estatu multinazionala

ketan antolatu zen herrialde esklabizatuetako proletalgoaren interesak eta kolonien askapenaren alde borrokatu zuen proletalgoaren interesek bat egin eta, ezinbestean, interes orokorren alde borrokatu behar zuen fronte iraultzaile baten beharra zutela. Proletalgoarentzat, nazio auzia iraultzako aliatuen auzia da. Lehen Mundu Gerraren eta Urriko Iraultzaren aurretik, mugimendu komunistek arazo hori iraultza burges demokratikoaren arazoaren zati gisa hartzen zuten. Lehen Mundu Gerraren eta Urriko Iraultzaren ondoren, iraultza sozialistaren prozesuko fase moduan hartuko dute.

Urriko Iraultza Sozialista Handiarekin batera hasi zen hirugarren aldia, eta bertan jarriko dugu azpimarra. Aurreko aldiekin alderatuz, nazio auzia planteatzeko zein ebazteko forma berriak proposatzen ditu aipatu berri dugun garaiak. Sobietar herrien arteko lankidetzeta eta kidetasuna helburu izanik, uztarri nazionalak likidatu eta nazio sozialista berriak eratzekeo garaia izan zen. Burgesiak era argi bat du afera hau ebazteko: nazioak zatitu, gorrotoa hauspotu, nazio bat bestearengandik esklabizatu eta abar. Urriko Iraultzak erakutsi zuen kapitalismoan ez dela aukera horiez gaindiko beste ezer eskaintzen. Eta beraz, nazio auzia bera ezin dela kapitalismoan ebatzi.

URRIKO IRAULTZA: NAZIO AUZIARI DAGOZKION IRAKASPEN NAGUSIAK

Urriko Iraultzaren lehen egunetan, 1917ko azaroaren 15ean zehazki, sobietar gobernuak *Errusiako herrien eskubideen adierazpena* onartu zuen. Dokumentu horrek, era nabarmen eta argian adierazten zituen Errusiako nazio ezberdinen eskubideak zeintzuk ziren:

1. Errusiako herrien berdintasuna eta subiranotasuna.
2. Errusiako herriek beren buruaz baliatzeko duten eskubidea, baita banandu eta era independentean eratzekeoa ere.
3. Pribilegio eta murriztapen nazional eta erlijiosoak indargabetzea.
4. Gutxiengo nazionalen eta Errusian bizi diren talde etnikoen garapen librea.

Sobieten Boterearen izaera bera —nazioartekoa, klase edukiari dagokionez—, kanpoko erasoen aurkako defentsa beharra eta eraikuntza sozialistaren beharra izan ziren sobietar herriak elkarrengana hurbiltzeko eta estatu multinazional bakar batean lotzeko baldintza nagusiak. 1922ko abenduaren 30ean sortu zen Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna, aurrekaririk izan ez zuen estatu multinazionala.

Errusiako Alderdi Komunistaren programan (1919) behin-behineko-



tasun gisa jasotzen da federazioaren ideia hori, eta Nazioarteko Kongresu Komunistaren II. Kongresuak (1920) onartutako auzi nazionalari buruzko tesiek (ideia Leninisten irismena zabaldu zutela esan daiteke) federazioa zatekeen langileen batasuna lortzeko bidea ireki zuten.

Beraz, koiuntura historikoak eraman zituen boltxebikeak hautu federala. Stalinek 1924an esan zuen bezala, posizio aldaketa berrikustean (1918ko Konstituzioak ez baitzuen aukera federalik kontuan izaten), federazioak nazionalitate desberdinetako langile taldeak elkartzeko balio izan zuen, eta gainera bateragarria zen unitate ekonomikoarekin. Baina, mugimendu nazionalaren pisu zehatza askoz handiagoa izan zen, eta nazioen batasunerako bidea lehen baino askoz konplexuagoa. Nazio auzia izan zen federazioari izaera aurrerakoia eman zion testuinguru berezia. Federazioa, beraz, premia praktikoen arabera antolatu zela esan daiteke. Horietan garrantzitsuenak ordena militarra eta ekonomikoa ziren.

Sobietar Batasuna eratu aurreko esperientzietan ikus daitekeenez, unitate ekonomikoa elementu nagusia izan zen uneoro, federazioari buruzko ikuskera

**Erregimen
sobietarra ez
zen eskubideen
berdintasuna
aldarrikatzera
mugatu, antzinako
erregimenetik
jasotako politika-,
ekonomia- eta
kultura-eremuan
herrien arteko
benetako
desberdintasunari
(...) amaiera ematen
ahalegindu zen**

boltxebikea aldatu arren: ez bakarrik sozialismora bidean ekonomia beharrezkoa zelako, baizik eta federazioaren formulak soilik ebatz zezakeelako nazioaren auzia, nazio guztien garapen kultural eta berdintasun materiala ortzi-mugan izanik.

Erregimen sobietarra ez zen esku-bideen berdintasuna aldarrikatzera mugatu, antzinako erregimenetik jasotako politika-, ekonomia- eta kultura-eremuan herrien arteko benetako desberdintasunari ahalik eta azkarren amaiera ematen ahalegindu zen. Alderdi komunistak arrakasta handiz egin zuen lan hori, herriaren etsaien aurka borroka etengabea, mota guztietako desbideraketa nazionalisten aurka. Errusiar herriaren laguntzaz, atzeratuen zeuden herrien garapena bilatu nahi izan zuten. Horretarako, klase esplotatzaileak, garaiko nazioen, botere sobietarren eta Alderdi Komunistaren etsai nagusi zirenak bidetik kenduta, herrien arteko adiskidetasun eta elkartasun harremani bide eman zitzaizen.

Ezin esan daiteke, ordea, sobietar batasunak bere aberriaren aldeko lana egiten zuenik soilik. Handiak izan ziren, beraien askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokan zebiltzan herrialde ezberdinek esklabotza gaitzera eta demokrazia ezartzera bidean sobietarregandik jaso zituzten laguntzak.

AUSTRIAKO KASUA: KULTURA ETA NAZIO AUTONOMIAREN TESIA

Ezaguna da, Austriako sozialdemokratek nazio auziari erantzun nahian programa bat aurkeztu zutela. Autonomia kultural nazionala izan zen proposamen hori. Programaren oinarri nagusia litzateke, lehenik eta behin, autonomia ez zaiela ematen, demagun, Bohemiari edo Poloniari, batez ere txekiarrak eta poloniarrak bizi direlarik, baizik eta txekiarrei eta poloniarrei oro har, edozein lurraldetan bizi direla ere. Horregatik deitzen zaio autonomia mota horri nazio, eta ez lurralde.

Horrek esan nahi du, txekiarrak,

poloniarrak, alemaniarrek eta abar, Austriako mugetan sakabanatuta daudenak, banaka hartuta, pertsona desberdintzat hartzen direnak, nazio osoetan antolatzen direla eta, halakotzat, Austriako Estatuaren parte izatera sartzen direla. Horrela, Austria ez da eskualde autonomoen batasun bat izango, baizik eta nazionalitate autonomoen batasun bat, lurraldez kanpo eratua.

Poloniarrentzat, txekiarrentzat eta abarrentzat helburu horietarako sortu behar diren erakunde nazional orokorrekin ez dute gai *politikoetan* esku hartzerik egingo, *kulturaletan* baizik. Bereziki politikoak diren gaiak Austria osoko parlamentuan (Reichsrat) ebatziko ziren. Horregatik, autonomia horri, gainera, kultural-nazionala deitzen zaio.

Hona hemen Austriako sozialdemokraziak 1899ko Brünngo Kongresuan onartutako programaren testua: «Austrian dauden nazio desadostasunek aurrerabide politikoa eragozten dute, auzi nazionalaren behin betiko konponbidea, batez ere, behar kulturala da» eta «konponbide hori sufragio unibertsal, zuzen eta berdinean oinarritutako gizarte benetan demokratiko batean bakarrik da posible». Hori adierazi ondoren, programak aurrera jarraitzen du: «Austriako herri guztien berezitasun nazionalen kontserbazioa eta garapena eskubide berdintasun osoan eta zapalkuntza mota ororen gabezia oinarrituta ez da posible. Beraz, lehenik eta behin, Estatuko zentralismo burokratiko oro baztertu behar da, baita lurraldeen pribilegio feudalak ere».

Ez da zaila ohartzea programa honetan *lurraldetasunaren* arrasto batzuk geratu zirela, baina, oro har, autonomia nazionalaren formulazioa da.

Lehenik eta behin, begi bistakoa da erabat ulertezina eta inola ere justifikatu gabea dela nazioen autodeterminazioa autonomia nazionalagatik ordeztzea. Autonomia kultural-nazionalak hainbat nazionalitatez osatutako Estatuaren osotasuna dakar berarekin, autodeterminazioa osotasun horren

Eskualde autonomiaren abantaila da, batez ere, hemen ez direla nazioak lurralderik gabeko fikzio batekin egin behar, baizik eta lurralde jakin batean bizi den biztanleria jakin batekin. Gainera, ez dira gizakiak nazioen arabera mugatzen, ez dira hesi nazionalak indartzen

Bere nazioak zapaltzen dituen kolonien eta nazioen banaketa politikorako askatasuna eskatu behar du. Bestela, proletalgoaren internazionalismoa hutsala eta hitzekoa izango litzateke; ez konfiantza, ez zapaldutako nazioaren eta zapaltzailearen arteko klase elkartasuna ez lirateke posible izango; autodeterminazioaren defendatzaile erreformisten hipokrisia moztzeko gabe geratuko litzateke, hartara

esparrutik irteten den bitartean; autodeterminazioak nazioari eskubide guztiak ematen dizkio, eta autonomia nazionalak, berriz, eskubide *kulturalak* baino ez dizkio ematen. Etorkizunean, barneko eta kanpoko zirkunstantzia horiek gertatzea oso litekeena da, nazionalitate bata edo besteak Austriako kide den estatu multinazionaletik ateratzea erabakitzea, alegia.

Stalinen arabera, autonomia nazionala kontraesanean dago nazioen garapenaren ibilbide osoarekin. Nazioak antolatzeko agindua ematen du. Baina nazioak artifizialki sortu daitezke, baldin eta bizitzak, garapen ekonomikoak, talde osoak banandu eta lurralde ezberdinetan sakabanatzen baditu.

Kapitalismoaren lehen faseetan nazioak kohesionatu egiten dira. Baina, era berean, zalantzarik gabe, kapitalismoaren fase garatuenetan nazioak sakabanatzeko prozesu bat hasten da. Horrela, bizilekuz aldatzen diren taldeek lotura zaharrak galtzen dituzte eta leku berrietan berriak bereganatzen dituzte, belaunaldiz belaunaldi ohitura berriak eta gustu berriak bereganatzen dituzte, eta, agian, baita hizkuntza berriak ere.

Baina nazio baten batasun eza ez da migrazioen ondorioz bakarrik erortzen. Barneko kausengatik ere amiltzen da, klaseen arteko borrokaren zorrotzasu-

narengatik adibidez. Kapitalismoaren lehen faseetan, oraindik hitz egin zitekeen proletalgoaren eta burgesiaren *kultura komunitateaz*. Baina, industria handiaren garapenarekin eta klaseen arteko borrokaren areagotzearekin, *komunitate* hori desagertzen hasi zen. Ezin da nazio baten *kultura komunitateaz* serioski hitz egin, nazio bereko burgesek eta langileek elkar ulertzeari uzten diotenean.

Stalinen arabera, arazo hori konpontzeko barneko edo nazioak berak bizi duen barne egoeraz gain, kanpoko egoerari ere erreparatu behar zaio. Errusia Europa eta Asiaren artean egonik, ezin dezakegu ahaztu garai haietan Asian ematen ari zen demokraziaren hazkundera eta European ematen ari zen inperialismoaren hazkundera kontuan hartu beharreko gakoak direla.

Stalinek salatu zuen, batasun horrek porrot egingo lukeela zenbait nazionalitatetako pertsonekin, interes ekonomikoengatik beste eskualde batzuetara emigratuko luketelako eta nazio baten etnia nagusiaren oztopoak izango litzuketelako. Kritika horretaz jabeturik, zenbaitzuk klase arteko batasuna iradokitzen dute.

Stalinek berak, kultura autonomia ez dela autodeterminazioa ziurtatzen du, autodeterminazioak ez baitu ulertzen zenbait naziok ezinbestean osa-

tutako estatu bat, eta gainera, kultura autonomiak ez baitie ematen herrien eskubide hori. Gainera, kapitalismoaren izaeragatik, nazio horiek ezinbestean bereizi egingo lirateke, bereziki nazio *artifizialak* direlako.

Aurrez aipaturiko proposamen horren aurrean, Stalinek eskualde autonomia proposatu zuen.

Eskualde autonomiaren abantaila da, batez ere, hemen ez direla nazioak lurralderik gabeko fikzio batekin egin behar, baizik eta lurralde jakin batean bizi den biztanleria jakin batekin. Gainera, ez dira gizakiak nazioen arabera mugatzen, ez dira hesi nazionalak indartzen, aitzitik, hesi horiek hausten dira eta biztanleria biltzen da beste mota bateko mugaketari, klaseen arabera mugaketari bidea irekitzeko. Azkenik, eskualdeko aberastasun naturalak ahalik eta ondoen erabiltzeko eta ekoizpen indarrak garatzeko aukera ematen du, irtenbidea erdigunetik etorri arte itxaron gabe, eta funtzio horiek ez ditu ematen autonomia kultural-nazionalak. Beraz, eskualde autonomia ezinbesteko puntua da auzi nazionala konpontzeko.

Zalantzarik gabe, eskualde bakar batean ere ez dago homogeneotasun nazional osorik, guztietan baitaude gutxiengo nazionalak. Horixe gertatzen zen juduekin Polonian, letoniarre-

“

**Autodeterminaziorako
eskubidea ukatzea,
herrialdeen arteko
banaketa osoa
barne, jatorri edo
adiera nazional
desberdinetako langile
klaseko kideen zatiketa
bermatzea litzateke**

kin Lituania, errusiarrekin Kaukason, poloniarrekin Ukrainan, eta abar. Gutxiengo sakabanatuak batasun nazional batean artikulatzea proposatzen da modu horretan. Baina gutxiengoek behar dutena ez da batasun artifizial bat.

Afera honek zuzenean garamatza internazionalismoaren ideia ukitzera. Internazionalismoa kapitalisten aurkako nazioarteko borroketan langile klasearen batasun adierazpena da. Aitzitik, ezin da herrien askatasunaren asmo zilegi eta demokratikoen aurka egin, ez eta internazionalismorik egon herri batek beste bat zapaltzea onartzen bada.

LENIN ETA NAZIOEN AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA

Nazioek autodeterminaziorako duten eskubideak zentzu politikoan independentziarako duten eskubidea besterik ez du esan nahi, zapaltzen duen nazioarekiko banaketa politiko askerako eskubidea. Aldarrikapen hori ez da inola ere estatu txikien banaketa, zatiketa eta eraketaren baliokidea. Zapalkuntza nazional ororen aurka borrokatzeko adierazpen kontsekuentea baizik. Estatuaren erregimen demokratikoa banantze askatasun osoraz zenbat eta gehiago hurbildu, orduan eta ahulagoak eta bakanagoak izango dira, praktikan, banantze asmoak; izan ere, estatu handien abantailak zalantzarik gabeak dira, bai aurrerapen ekonomikoaren ikuspegitik, bai masen interesen ikuspegitik, eta, gainera, abantaila horiek etengabe handitzen dira kapitalismoaren hazkundearekin.

Sozialismoaren helburua ez da soilik estatu txikietan gizateriaren zatiketa eta nazioen isolamendu oro ezabatzea, ez da soilik nazioen arteko hurbilketa, baita nazioen bat-egitea ere.

Eta Leninen beraren arabera, helburu hori lortzeko, batetik, Renner eta O. Bauerren ideien izaera erreakzionarioa azaldu beharra dago *autonomia kultural-nazionala* izenekoari buruz, eta, bestetik, nazio zapalduen askape-

na eskatu behar dugu, ez esaldi orokor lausoetan, ez edukirik gabeko aldarrikapenetan, ez arazoa sozialismoraino *atzeratuz*, baizik eta argi eta zehatz formulatutako programa politikoan. Sozialisten koldarkeria nazioetan, era berean, gizateria klase zapalduaren diktaduraren trantsizio-garaiaren bidez bakarrik joan daiteke klase ezabatzea, eta, era berean, nazioen bat-egite saihestezinera irits daiteke, soilik nazio zapaldu guztien erabateko askapenaren trantsizio aldiaren bidez, hau da, haien banantze askatasunaren bidez.

Proletalgoak ezin dio nazio zapalduak estatu jakin baten mugen barruan indarrez mantentzearen aurka borrokatzeari utzi, eta hori autodeterminazio-eskubidearen alde borrokatzearen parekoa da. Bere nazioak zapaltzen dituen kolonien eta nazioen banaketa politikorako askatasuna eskatu behar du. Bestela, proletalgoaren internazionalismoa hutsala eta hitzekoa izango litzaiteke; ez konfiantza, ez zapalduetako nazioaren eta zapaltzailearen arteko klase elkartasuna ez lirateke posible izango; autodeterminazioaren defendatzaile erreformisten hipokrisia moztzeko ga-be geratuko litzateke, hartara.

Leninek autodeterminazio eskubidea defendatu zuen oinarritzko eskubide demokratiko gisa, baina beti iraultza sozialerako estrategia batean sartuta. Zergatik defendatzen du Leninek herrien autodeterminazio eskubidea azken ondorioetaraino, hau da, sezesioa barne? Hiru arrazoi nagusirengatik:

A) Inperialismoaren aurka borrokatzen delako, masa kolonialak inperialismoaren aurka altxa daitezten. Leninek uneoro hartzen ditu masa horiek aktore politikotzat. Eta Leninentzat, aktore politiko horiek funtsezkoak dira nazioarteko burgesia ahultzeko. II. Internazionallean, auzi nazionalaren gaia eta koloniei buruz ematen ziren eztabaida ugari Leninek planteatzen zuenaren antipodetan zeuden.

B) Langile klasea bateratzeko eta nazionalismoek nazio zapaltzailean zein nazio zapalduan duten eragina hausteko aurrebaldintza gisa ulertzen

Leninek nazio emantzipazioaren eta gizarte emantzipazioaren arteko harreman dialektikoa ongi ulertzen zuen. Bere ustez, borroka nazionala ez zen iraultza sozialaren aldeko borrokaren desbideratze bat. Borroka horretan, iraultzaileek klaseen arteko borroka areagotzeko erabiltzen jakin behar zuten potentzialitateak zeuden





zuen. Nazio zapaltzailean, langile klase horrek autodeterminazio eskubidea defendatzea bere emantzipaziorako aurrebaldintza da. Ezinezkoa da norberaren emantzipazioa klase gisa nahi izatea, norberaren klasearen (nazio zapalduaren) zati bat zapaltzen lagunduz gero. Gainera, kasu horretan, indartzen dena norberaren burgesia litzateke (hau da, zapalduak nazioaren burgesia). Orientazio horrek ez du inola ere langileria bateratzea errazten. Nazio zapalduari dagokionez, banantzeko askatasuna izanez gero soilik erabaki ahal izango litzateke kontrakoa. Errusian, autodeterminazio eskubidea defendatzen zuten nazionalitate gehienek, Errusiar Iraultzaren ondoren erabaki zuten, eta konkistatutako eskubide horrekin, eskubide hori ez erabiltzea eta errepublika sozialista batean bateratzea.

C) Leninek nazio emantzipazioaren eta gizarte emantzipazioaren arteko harreman dialektikoa ongi ulertzen zuen. Bere ustez, borroka nazionala ez zen iraultza sozialaren aldeko borroka-aren desbideratze bat. Borroka horretan, iraultzaileek klaseen arteko borroka areagotzeko erabiltzen jakin behar zuten potentzialitateak zeuden.

ONDORIO OROKORRAK

1) Gizartearen emantzipazioaren harira, klase arteko borroka da burgesiarekin amaitzeko eta sozialismoaren bideari ekiteko bide bakarra.

2) Internazionalismoa langile klasearen batasunaren adierazpena da kapitalisten aurkako nazioarteko borrokan. Internazionalismoa, ordea, ezin da askatasunaren bidezko asmo demokratikoen aurka jarri. Aitzitik, ezin da internazionalismorik egon herri batek

bestea zapaltzea onartzen baldin bada.

3) Langile klaseak bere klase posizioa mantendu behar du burgesiatik bereizita. Bai nazio zapaltzailekotik baita nazio zapaldukotik ere, askapen prozesuaren gidaritza bere gain hartzeko aukera eta baldintzak dituen artean, bederen.

4) Emantzipazio nazionala gizartearen emantzipazioaren aurka jartzeak edo ukatzeak ez du zerikusirik Marxen posizioarekin. Hori argi eta garbi ikus dezakegu Irlandako kasuan.

5) Autodeterminaziorako eskubidea ukatzea, herrialdeen arteko banaketa osoa barne, jatorri edo adiera nazional desberdinetako langile klaseko kideen zatiketa bermatzea litzateke. /

Argitaraturik
2020KO URRIAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
SS-01360-2019

Lizentzia



arteka

